

BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMEN SAILA

4065

AGINDUA, 2023ko uztailaren 26koa, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuarena, zeinaren bidez onartzen baitira, 2023rako, Euskal Autonomia Erkidegoko nekazaritzaren, basogintzaren eta arrantza- eta akuikultura-produktuen sektoreetan ikertu, garatu eta berritzeko laguntzen deialdiaren oinarriak (Berriker).

Enpresei I+G+Brako ematen zaizkien laguntzak dira I+G+B garatzeko tresna garrantzitsuetakoak, epe laburrera erantzuteko ez ezik, enpresa-arloko ekimenak bultzatzeko eta zentro teknologikoekin elkarlanean jardun dezaten bultzatzeko ere bai (hori da, izan ere, xede nagusia), ikerlanak azpisektoreen bitartez gara daitezen sustatuz.

Horrela dago jasota, I+G+B jarduerak sustatuz, nekazaritzako elikagaien sektorearen lehiakortasuna handitzeko Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko Sailak egindako, lagundutako eta bultzatutako planetan ere.

«Euskadi 2030 Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Plana» (ZTBP 2030) bera Euskadik ikerketaren eta berrikuntzaren alde egiten dun apustu estrategikoa da, euskal ekonomiak lehiakortasuna hobetu eta hazkunde iraunkorraren bidean aurrera egin dezan lortzeko eragile gisa. EAEk erreferentea izan nahi du gastronomiaren eta elikaduraren arloan, kalitate handiagatik ez ezik, balio-katearen jasangarritasunagatik ere bai ekonomiaren, gizartearen, kulturaren eta ingurumenaren alorretan. Erronka handi hori lortzeko, bultzatu eta garatu egin behar da enpresak kalitatezko produktu osasungarriak merkaturatu ditzala eta jasangarritasuna susta dezala, aparteko turismo-balioa duen proposamen bat sortzeaz gain, kultura, paisaia eta gastronomiaren alorreko ondarearen kontserbazioa bultzatzea eta mundu mailan aintzatespen-maila are handiagoak lortzea ahaztu gabe. Garapen hori, halaber, elikaduraren eta egurraren balio-katearen, ekoizpen primarioaren eta elikagai osasungarrien kontsumoaren paradigman funtsatuta bultzatu behar da; izan ere, pertsonak –elikagaien kontsumitzaileak– balio-kate osoaren erdigunean daude, eta sinergiak eta harremanak bilatu behar dira beste sektore ekonomiko, kultural eta sozial batzuekin.

Horretarako, trantsizio teknologiko-digitalari lotutako zeharkako erronkei egin beharko die aurre (elikaduraren eta egurraren balio-katearen maila guztietan IKTak integratu beharko dira horretarako), baita trantsizio energetiko eta klimatikoari ere (ekonomia zirkularrera egokitzea ekarriko du horrek berekin, xahubidea minimizatuz, elikadura-azpi produktuak berreskuratuz eta balorizatuz eta elikagaien paketatzea birdiseinatuz). Halaber, trantsizioa sozial eta sanitarioa aukera-iturri bihurtzen da. Hori guztia honako erronka hauetan zehazten da, dagokion denbora-jomugari jarraikiz:

– Epe laburrerako erronkak:

- Elikagaien ekosistema seguruak, jasangarriak eta osasungarriak.
- Nutrizio pertsonalizatua: omikengarapena eta produktu berrien formulazioan duten aplikazioa.
- Zahartze osasungarriko elikagai berriak: haurtzarotik hirugarren adinera arte.
- Proteina-iturri berriak.

– Epe ertainerako erronkak:

- Proteinak edo beste elikadura-osagai batzuk –biofilmak, polisakaridoak, gantz-azidoak, bitaminak, etab.– bioteknologikoki ekoizteko metodo berriak.

- Nutrizioak gaixotasunen – bereziki gaixotasun ez-transmitigarrien– prebentzioan duen garrantzian ardaztutako doitasun-nutrizioa, biztanleriaren osasun eta ongizaterako lagungarria dela kontuan izanik.

- Ikuspegi berriak sustatzea, biztanle-kolektibo jakin batzuetan nutrizioaren alorreko esku-haritzeak lortzeko ez ezik, dietak osasunean eta ongizatean duen eragina indartzeko ere bai.

I+G+B alorreko lehentasunezko eremu horiek jarraiki egiten die «baserritik mahaira» estratejiari (farm to fork), elikadura-sistema osasungarri eta bidezko baten alde egiten duenari, hain justu. Elikaduraren eta egurraren balio-kateko enpresetan praktika jasangarriak estimulatuz, hala nola honako hauekin lotutako proiektuak:

- Nekazaritza ekologikoa, produktu ekologikoa.
 - Animalien ongizatea.
 - Jatorriari buruzko etiketak: osasungarria, jasangarria, animalien ongizatea.
 - Ontziak: elikagaiak ukitzeko egokiak diren biomaterialak.
 - Elikagaiak alferrik galtzea.
 - Plagizidak, fitosanitarioak eta mikrobioen aurkakoak murriztea.
 - Merkaturatze arduratsua eta, oro har, balio-kate osoan.
 - Iruzuraren kontrako borroka.
 - Nutrizio-profilak (etiketatzearekin ere lotuta).
 - Elikadura jasangarria, osasungarria eta herritarrentzat ahalik eta eskuragarriena.
- Kontsumitzaileen ahalduntzea.

Trantsizio eta aurrerapen horiei aurre egiteko estrategia europarretan, ikertuz, teknologia garatuz eta berrituz jakintza sortzea da Ekonomiaren Garapen, Jasangarrtasun eta Ingurumeneko Sailak nekazaritza, elikadura eta arrantzaren alorretan sektore horien lehiakortasuna bultzatzeko abiarazita duen strategiaren oinarritzko euskarrietako bat.

Europako Batzordearen ekainaren 17ko 651/2014 Erregelamenduan (EB) –horren bidez, laguntza-kategoria jakin batzuk barne-merkatuarekin bateragarritzat jotzen dira, Tratatuaren 107. eta 108. artikulua aplikatzearen ondorioz–, III. kapituluaren IV. sekzioan, ikerketa eta garapenerako proiektuen laguntzak arautzen dira, zeinek barne hartzen baitituzte ikerketa industrialeko eta garapen esperimentaleko proiektuak (25. artikulua) eta prozesuak eta antolaketa berritzeko laguntzak (29. artikulua).

Europako Batzordearen 2022ko abenduaren 14ko 2022/2472 (EB) Erregelamenduko 38. artikuluan ere arautzen dira nekazaritza- eta basogintza-sektoreetan ikertzeko eta garatzeko laguntzak. Erregelamendu horrek nekazaritza eta basogintza sektoreetarako eta landa eremuetarako laguntza kategoria jakin batzuk barne merkatuarekin bateragarriak deklaratzeko, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. eta 108. artikulua aplikatuz. Hala, agindu honen xedea da I+G+B proiektuetan gastuak eta inbertsioak egiteko laguntzak emateko deialdia egitea.

Landa-garapeneko politikaren arabera, bateragarriak dira Europar Batasunak eta Euskal Autonomia Erkidegoak elkarrekin finantzatzen dituzten neurriak eta Estatuak ematen dituen laguntzak. Hala ere, Estatuak ematen dituen laguntzek muga jakin batzuen barnean egon behar dute, eta kontrol-neurri jakin batzuk bete behar dituzte, koherentzia izan dadin bi politiken artean, eta Tratatuan lehiakortasunaren alorrean xedatzen diren arauak hertsiki bete daitezten.

Europako Batzordearen ekainaren 17ko 651/2014 Erregelamenduak (EB) ezartzen du zer baldintza eta betekizun bete behar dituzten laguntzek estatu kideek diruz lagun ditzaten (estatu-laguntza izan daitezten) Europar Batasunaren baimenik eduki beharrik izan gabe.

Hau da, laguntza horiek arautzean eta ematean, erregelamendu horretan ezarritakoa errespetatu eta betetzen badute estatu kideek, laguntza horiek merkatu erkidearekin bateragarriak direla ulertzen da, eta, beraz, ez dute Europar Batasunaren baimenik behar.

Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. eta 108. artikuluekin bat nekazaritza- eta basogintza-sektoreetarako eta landa-inguruneetarako laguntzen zenbait kategoria barne-merkatuarekin bateragarri deklaratzeko Batzordearen ekainaren 25eko 702/2014 Erregelamenduak (EB) xedatzen du, 1. artikuluan 2. paragrafoan, nekazaritzaren eta basogintzaren sektoreak ikertzeko eta garatzeko laguntzak Batzordearen ekainaren 17ko 651/2014 Erregelamenduaren baldintzetan eta horren arabera eman ahal izango direla.

Hain zuzen ere, erregelamendu horren IV. sekzioan xedatutakoaren barruan sartzen dira agindu honetako laguntzak.

Era berean, agindu honen bidez iragarritako laguntzak jasota daude Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko Sailaren 2021-2023 urteetarako Dirulaguntzen Plan Estrategikoan. Plan estrategiko hori Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuaren 2021eko martxoaren 17ko Aginduaren bidez onartu zen (Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko Sailaren 2021, 2022 eta 2023rako dirulaguntzen plan estrategikoa onartzekoa), eta Eusko Jaurlaritzaren «www.euskadi.eus» webgunean argitaratuta dago, sailari buruzko eremuan, «Planak eta proiektuak» atalean.

Aurrekontu-zuzkidura nahikoa dago Euskal Autonomia Erkidegoko 2023. urteko Aurrekontu Orokorra onartzen dituen abenduaren 23ko 15/2022 Legeak baimendutako kredituen arabera, eta, Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu-araubideari dagokionez indarrean dauden lege-xedapenen testu bategina onartzen duen maiatzaren 24ko 1/2011 Legegintzako Dekretuan ezarrita dagoenari jarraikiz, laguntza-deialdi honek aurrekontu-estaldura nahikoa du.

Eta Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearekin bat etorritik (lege horren 26.4 artikuluan arabera, gobernuak gisa dagozkien eskumenei kalterik egin gabe, sailburuek beren sailari dagozkion gaietan administrazio-xedapen orokorrak eta ebazpenak emateko eskudantzia izango dute), honako hau

EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.– Deialdia.

Onartzea, 2023rako, Euskal Autonomia Erkidegoko nekazaritzaren, basogintzaren eta arrantza- eta akuikultura-produktuen sektoreetan ikertu, garatu eta berritzeko laguntzen deialdiaren oinarriak. Agindu honen eranskinean jasotzen dira oinarriok.

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA.– Errekurtsoak.

Agindu honen aurka, interesdunek berraztertzeko errekurtsoa jar diezaiokete Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuari, hilabeteko epean. Bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar dezakete Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hileko epean. Kasu bietan, agindua argitaratu eta hurrengo egunean hasiko da epea.

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA.– Ondorioak.

Agindu honek ondorioak izango ditu Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko uztailaren 26a.

Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburua,
MARÍA ARANZAZU TAPIA OTAEGUI.

I. ERANSKINA

1. oinarria.– Xedea eta helburua.

1.– Agindu honen xedea da Euskal Autonomia Erkidegoko nekazaritzaren, basogintzaren eta arrantza- eta akuikultura-produktuen sektoreetan ikerketa, garapena eta berrikuntza sustatu eta bultzatzeko laguntzen araubidea iragartzea (Berriker).

2.– Arau honetan erregulatzen diren ikerketa, garapen eta berrikuntzarako laguntzen helburua da efizientzia areagotzea, lehiakortasuna hobetzea, hazkunde jasangarriaren alde egitea eta lankidetzaren sustatzea Euskal Autonomia Erkidegoko nekazaritzaren, basogintzaren eta arrantza- eta akuikultura-produktuen sektoreetan.

3.– Agindu honetan aurreikusitako laguntzek jakinarazi beharretik salbuetsita dauden laguntzen tratamendu bera izango dute, honako hauen arabera: Europako Batzordearen 651/2014 Erregelamendua (EB), ekainaren 17koa, Tratatuaren 107. eta 108. artikulua aplikatuz, laguntza-kategoria jakin batzuk merkatu komunarekin bateragarriak direla deklaratzeko duena (kategorien arabera salbuespenen erregelamendu orokorra); eta Europako Batzordearen 2022/2472 Erregelamendua (EB), 2022ko abenduaren 14koa, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. eta 108. artikulua aplikatuz, nekazaritza- eta basogintza-sektoreetako eta landa-eremuetako laguntza-kategoria jakin batzuk barne-merkatuarekin bateragarriak direla deklaratzeko duena. Horrenbestez, laguntza horiek behar bezala jakinarazi behar zaizkio Europako Batzordeari, agindu hau argitaratu eta hurrengo 20 eguneko epean.

4.– Inbertsioak eta gastuak urterokoak edo hainbat urtetarako izango dira, aurkezten diren proiektuak gauzatzeko denboraren arabera.

2. oinarria.– Definizioak.

Agindu honen ondorioetarako, honela ulertuko dira jarraian datozen definizioak:

1.– Zientziaren, Teknologiaren eta Berrikuntzaren Euskal Sarea: ikerketan, garapenean eta berrikuntzan diharduten entitateak, eta entitate horiek, sarean lan eginez, I+G+B arloko jardueren uztarketa orekatua garatzen dute, ikerketa espezializatu eta bikaina egiten dute, eta horrek eragina du Euskadiko aberastasunean eta ongizatean. Honako honi jarraikiz egiaztatutako entitateak dira: 21/2021 Dekretua, urtarrilaren 26koa, zeinaren bidez hirugarren aldiz aldatzen baita Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sarearen osaera arautzeari eta eguneratzeari buruzko ekainaren 23ko 109/2015 Dekretua.

2.– Enpresa-talde berritzaileak: egitura edo talde antolatutakoak, alderdi independentez osatuak (esate baterako, enpresa berritzaile sortu berriak eta enpresa txiki, ertain eta handiak, bai eta ikerketa eta ezagutzen zabalkunderako erakundeak, irabazi asmorik gabeko erakundeak eta horiekin guztiekin lotutako beste eragile ekonomiko batzuk ere). Egitura edo talde hauen helburua da jardueraren berritzaileak sustatzea, instalazioen erabilera partekatua eta ezagutza teoriko eta praktikoen trukea bultzatuz, bai eta ezagutzen transferentziarako, sareak sortzeko, informazioaren zabalkunderako eta enpresen eta taldeko beste erakunde batzuen arteko lankidetzarako laguntza emanez.

3.– Lankidetzaren eraginkortasuna: gutxienez bi alderdi independenteren arteko lankidetzaren ezagutzak edo teknologia elkarri trukatzeko, edo lan-banaketa oinarri hartuta helburu bera lortzeko, non esku hartzen duten alderdiek elkarlanean gauzatu beharreko proiektuaren eremua batera zehazten duten, hori aplikatzen laguntzen duten eta haren arriskuak eta emaitzak partekatzen dituzten; alderdi batek edo hainbatek proiektuaren kostu guztiak bere gain har ditzake eta, era horretan,

gainerako alderdiei finantza-arriskuak kendu. Kontratupeko ikerketa eta ikerketa-zerbitzuen prezazioa ez dira lankidetzaz modutzat hartzen.

4.– Nekazaritzako produktuak merkaturatzea: salmentarako produktuak edukitzea edo erakustea, salmentarako eskaintza, merkaturako entregatzea edo merkaturan jartzeko edozein modu, lehen sektoreko ekoizleek bitartekariari edo eraldatzaileei egindako lehenengo salmenta edo lehen salmenta horretarako produktu bat prestatzeko jarduerak izan ezik; lehen sektoreko ekoizleek azken kontsumitzaileei egindako salmenta merkaturatzea dela ulertuko da baldin eta horretarako gordetako instalazio independenteetan egiten bada.

5.– Garapen esperimentalak: aurretik ere baziren jakintzak eta teknikak (zientifikoak, teknologikoak, enpresa-arlokoak eta abar) eskuratu, konbinatu, konfiguratu eta erabiltzea, produktu, prozesu edo zerbitzu berriak edo hobetuak prestatzeko. Hor sartu ahal izango dira, esate baterako, produktu, prozesu eta zerbitzu berriei buruzko definizio kontzeptuala, plangintza eta dokumentazio-lana egiteko jarduerak ere. Era berean, garapen esperimentalean sartu ahal izango da prototipoak sortzea, demostrazioa, proiektu pilotuak prestatzea, produktu, prozesu edo zerbitzu berri edo hobetuen baliozkotzea eta entseguak egitea, funtzionamendu errealeko baldintzak islatzen dituzten inguruneetan, baldin eta helburu nagusia bada behar beste finkatuta ez dauden produktu, prozesu edo zerbitzuei hobekuntza teknikoak ematea. Orobat, merkataritza-erabilera duten prototipo eta proiektu pilotuak garatzea ere barne har dezake, azken merkataritza-produktuaren behar eraginez sortzen badira, eta haien fabrikazioa erakusketa- eta balioztatze-helburuetarako bakarrik garestiegia denean. Garapen esperimentalak ez ditu barnean hartzen produktuei, ekoizpen-lerroei, fabrikazio-prozesuei, lehendik baziren zerbitzuei eta martxan dauden beste operazio batzuei egiten zaizkien ohiko edo aldian aldiko eraldaketak, nahiz eta eraldaketa horiek hobekuntzak ekarri.

6.– Enpresa: jarduera ekonomiko bat garatzen duen erakundea, bere forma juridikoa edozein dela ere. Bereziki, enpresatzat hartzen dira banakako edo familiako eskulangintzan edo beste jarduera batzuetan aritzen direnak, pertsonen sozietateak eta erregulartasunez jarduera ekonomiko batean aritzen diren elkarteak.

7.– Krisian dagoen enpresa: halakotzat hartzen da Europako Batzordearen ekainaren 17ko 651/2014 (EB) Erregelamenduaren 2. artikulua 18. apartatuan jasotzen diren egoeraren batean gutxienez dagoen enpresa.

8.– Prozesuen berrikuntza: ekoizpen- edo hornidura-metodo berri edo nabarmen hobetutako bat aplikatzea (tekniken, ekipoen edo programa informatikoen arloko aldaketa nabarmenak barne); ez dira barnean hartzen aldaketa edo hobekuntza txikiak, aurretik ere erabiltzen ziren fabrikazio-sistema edo logistiken oso antzekoak sartuta lortutako ekoizpen- edo zerbitzu-gaitasunen hobekuntzak, prozesu bat aurrerantzean ez erabiltzea, kapitala besterik gabe ordeztu edo handitzea, faktoreen prezioa aldatu dela-eta sortutako aldaketak, ekoizpen pertsonalizatua, tokiko erabileretara egokitzea, sasoiaren arabera edo bestela aldian-aldian egiten diren aldaketak eta produktu berrien edo nabarmen hobetuen salerosketa.

9.– Ikerketa industriala: produktu, prozesu edo zerbitzu berriak sortzeko edo lehendik bazeudenak nabarmen hobetzeko lagungarri izan daitezkeen jakintza eta gaitasun berriak eskuratzeko helburuz eginiko ikerketa planifikatua edo azterlan kritikoak. Bertan sartzen da sistema konplexuen osagaiak sortzea, eta, halaber, honako hauek ere sar daitezke: prototipoak eraikitzea laborategi erako ingurune batean edo dauden sistemekin simulatutako interfazedun ingurune batean, baita lerro pilotuak, ikerketa industrialerako eta, bereziki, teknologia generikoa baliozkotzeko beharrezkoa denean.

10.– Nekazaritzako produktua: Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren I. eranskinean zerrendatutako produktuak, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2013ko abenduaren 11ko 1379/2013 (EB) Erregelamenduaren I. eranskinean zerrendatutako arrantza- eta akuikultura-produktuak izan ezik.

11.– Nekazaritza-ekoizpen primarioa: nekazaritzatik eta abeltzaintzatik eratorritako produktuen ekoizpena, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren I. eranskinean zerrendatuak, produktu horien izaera aldatzen duen beste eragiketarik egin gabe.

12.– Arrantzako eta akuikulturako produktuak: arrantzako jardueretatik lortutako organismo akuatikokoak edo horietatik eratorritako produktuak, 2013ko abenduaren 11ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1379/2013 (EB) Erregelamenduaren I.b) eranskinean zerrendatzen diren eran.

13.– Akuikulturako produktuak, organismo akuatikoak, bizitza-zikloaren fase guztietan, akuikulturako jardueretatik lortuak edo horietatik eratorritako produktuak.

14.– Itzulketa: jasotako laguntza itzultzea, pertsona edo erakunde onuradunak bere betebeharrak bete ez izanaren ondorioz.

15.– Nekazaritza- eta basogintza-sektorea: nekazaritzaren eta basogintzaren ekoizpen primarioan zein eraldaketan eta merkaturatzean jarduten duten enpresa guztiak.

16.– Arrantza-sektorea eta akuikultura-sektorea: ekonomiaren sektore bat da, arrantza- eta akuikultura-produktuak ekoiztu, eraldatu eta merkaturatzeko jarduera guztiak barne hartzen dituena.

17.– Nekazaritzako eta basogintzako produktuak eraldatzea: nekazaritzako eta basogintzako produktu baten gainean egindako eragiketaren emaitza, emaitza nekazaritzako eta basogintzako produktu bat denean, animalia- edo landare-produktu bat lehenbiziko salmentarako prestatzeko egin behar diren nekazaritza- eta basogintza-jarduerak izan ezik.

3. oinarria.– Laguntza-lerroak.

Laguntza-lerro hauek ezartzen dira, agindu honetako 1. oinarriko xedea lortzeko:

1.– Elikaduraren eta zuraren balio-kateari lotutako I+G proiektuetarako laguntzak.

Diruz lagundu daitezkeen proiektuen tipologia hauek jasoko dute laguntza:

1.1– Elikaduraren eta zuraren balio-kateko enpresetako I+G proiektuak. Halakotzat hartuko dira elikaduraren eta zuraren balio-kateko ekoizpen, eraldaketa, banaketa edo merkaturatzearen sektoreetako enpresek gidatutako industria-ikerketarako edo garapen esperimentalerako proiektuak. Mota horretako proiektuak produktu, zerbitzu, negozio-prozesu edo negozio-eredu zientifiko-teknologikoak –bai berriak bai nabarmen hobetuak eta termino zientifiko-teknologikoetan existitzen direnak baino hobekak izango direnak– garatzera bideratuta egon beharko dute. Balorazio positiboa emango zaio elikaduraren eta zuraren balio-kateko maila guztietako enpresen arteko lankidetzari, baldin eta lankidetzak hori lagungarria bada balio-proposamen lehiakorragoak garatzeko eta balio-katea integratzen laguntzeko, baita enpresen eta Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko eragileen arteko lankidetzak ere.

1.2.– Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Sareko eragileek Elikaduraren eta zuraren balio-katearentzat ezagutza sortzeko egindako I+G proiektuak, Elikadura Osasungarriaren RIS3 eremuari, «baserritik mahaira» estrategiari eta Sailburuordetzak I+G arloan abiarazitako planei lotutako I+G lerroetan. Horiek 5. oinarrian zehazten dira.

Mota horretako proiektuek ezagutza sortu beharko dute, etorkizunean elikaduraren eta zuraren balio-kateko enpresek aplikatu edo merkaturatu ditzaten. Positiboki baloratuko da Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko askotariko eragileen arteko lankidetzak, baita enpresek eta elikaduraren eta zuraren balio-kateko beste erakunde batzuek interes-adierazpenak izatea ere.

Laguntza-lerro horretako proiektu mota biek honako honetan ezarritakoari jarraikiko diote: Tratatuaren 107. eta 108. artikulua aplikatuz, laguntza-kategoria jakin batzuk barne-merkatuarekin bateragarriak direla deklaratzeko duen Europako Batzordearen ekainaren 17ko 651/2014 Erregelamenduaren (EB) 25. artikulua.

2.– I+G proiektuetarako laguntzak, baldin eta proiektu horien xedea Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko eragileek nekazaritza- eta basogintza-sektoreetarako ezagutza sortzea eta ezagutza hori hedatzea bada.

Laguntza-lerro honetako proiektuek ezagutza sortu eta asko zabaldu beharko dute. Hori dela eta, helburuak Interneten argitaratu beharko dira hasi baino lehen, eta emaitzak doan eskuratu ahaliko dira Euskal Autonomia Erkidegoko nekazaritza edo basogintzako sektorean edo azpi-sektorean diharduen edozein enpresarentzat, gutxienez bost urtez, proiektua amaitzen denetik zenbatzen hasita.

Positiboki baloratuko da Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko askotariko eragileen arteko lankidetzak, baita enpresek eta nekazaritza edo basogintzako sektorean edo azpi-sektoreko beste erakunde batzuek interes-adierazpenak izatea ere.

Laguntza-lerro hau hemen ezarritakoaren arabera izango da: Tratatuaren 107. eta 108. artikulua aplikatuz, nekazaritza- eta basogintza-sektoreetako eta landa-eremuetako laguntza-kategoria jakin batzuk barne-merkatuarekin bateragarriak direla deklaratzeko duen Europako Batzordearen 2022ko abenduaren 14ko 2022/2472 (EB) Erregelamenduren 38. artikulua.

3.– Negozio-prozesuetan berritzeko proiektuetarako laguntzak.

Halakotzat hartuko dira oinarri teknologikoko berrikuntza-proiektuak, teknologia digitalak barne hartuta, elikaduraren eta zuraren balio-kateko enpresetan ekoizteko, eraldatzeko, banatzeko edo merkaturatzeko negozio-prozesuetan. Laguntza-lerro honetako proiektuak berria den edo nabarmen hobetuta dagoen negozio-prozesu bat txertatzera bideratuta egon beharko dira, eta negozio-prozesu horren ezaugarriak edo aplikazioak lehendik zeudenen oso desberdinak izan beharko dira teknologiari dagokionez, dela teknologia berrien erabileraren ondoriozkoak direlako, dela lehendik existitzen zirenen konbinazio edo erabilera berriak direlako.

Proiektu horiek lagungarriak izan beharko dira enpresaren lehia-posizioa nabarmen hobetzeko, eta aldaketa edo hobekuntza txikiagoei heltzen dieten proiektuak eta aldaketa errepikakorrek salbuetsita geratuko dira.

Ez dira kontuan hartuko berrikuntza bat ezartzeko helburu nagusia ez duten proiektuak, hala nola planak egitea edo azterlanak eta analisiak gauzatzea. Ez dira kontuan hartuko, ezta ere, produktu edo zerbitzuetan berrikuntzak txertatzeko proiektuak edo digitalizazio-proiektuak baldin eta enpresaren negozio-prozesuetan aldaketa edo hobekuntza esanguratsuak eragiten ez badituzte, hala nola produktu informatikoen ezarpena.

Laguntza-lerro horrek honako honetan ezarritakoari jarraikiko dio: Tratatuaren 107. eta 108. artikulua aplikatuz, laguntza-kategoria jakin batzuk barne-merkatuarekin bateragarriak

dirrela deklaritzen duen Europako Batzordearen ekainaren 17ko 651/2014 Erregelamenduaren (EB) 29. artikulua.

4. oinarria.– Pertsona onuradunak.

1.1 lerroan aintzat hartutako laguntzetarako (elikaduraren eta zuraren balio-kateko enpresetako I+G proiektuei dagozkienak) honako hauek izan daitezke onuradunak:

A) Enpresak, duten forma juridikoa alde batera utzita. Honela egongo dira sailkatuta:

1.– Enpresa txiki eta ertainak; mikroenpresen eta enpresa txiki eta ertainen definizioari buruzko Europako Batzordearen ekainaren 17ko 651/2014 (EB) Erregelamenduaren I. eranskinaren arabera.

2.– Enpresa handiak; hau da, enpresa txiki eta ertainen definitiotik kanpo geratzen direnak.

B) Enpresaburuak elkarrekin.

C) Nortasun juridikorik gabeko pertsona fisiko edo juridiko pribatuen taldeak eta partzuergoak eta ondasun-erkidegoak. Bertan parte hartzen duten entitate guztiak joko dira onuraduntzat, eta guztiak bete beharko dituzte agindu honetan ezarritako betekizun eta baldintzak. Elkarrekin eskabideek berariaz adierazi behar dituzte elkarteko kide bakoitzak proiektua gauzatzeko hartzen dituen konpromisoak eta bakoitzari aplikatu beharreko zenbatekoa, horiek ere onuradun gisa hartuko baitira. Dena den, taldearen ordezkari edo ahaldun bakar bat izendatu beharko dute, zeinak nahikoa botere izango baitu, onuradun gisa, taldeari dagozkion egitekoak betetzeko, eta kide bat izendatu beharko dute funtsen hartzaile izateko, zeinak banatuko baitizkie funtsok taldeko gainerako kideei. Elkarrekin ezin dira desegin Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintza Dekretuko 44. artikulua, 32.m) artikuluaekin batera, finkatzen duen preskripzio-epea igarotzen den arte.

1.2 lerroan aintzat hartutako laguntzetarako (elikaduraren eta zuraren balio-katerako ezagutza sortzeko proiektuei dagozkienak), eta 2. lerroan aintzat hartutako laguntzetarako (nekazaritza- eta basogintza-sektoreetarako ezagutza espezifikoak sortzeko eta zabaltzeko proiektuei dagozkienak), onuradunak Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko edozein eragile izan daitezke.

3. lerroan aintzat hartutako laguntzetarako (negozio-prozesuetako berrikuntza-proiektuei dagozkienak); pertsona hauek izan ahalko dira onuradunak:

A) Enpresak, duten forma juridikoa alde batera utzita. Honela egongo dira sailkatuta:

1.– Enpresa txiki eta ertainak; mikroenpresen eta enpresa txiki eta ertainen definizioari buruzko Europako Batzordearen ekainaren 17ko 651/2014 (EB) Erregelamenduaren I. eranskinaren arabera.

2.– Enpresa handiak; hau da, enpresa txiki eta ertainen definitiotik kanpo geratzen direnak. Batzordearen ekainaren 17ko 651/2014 (EB) Erregelamenduaren 29. artikulua 2. puntuan jasotzen den bezala, enpresa handietarako laguntzak bateragarriak izango dira soilik laguntzaren xede den jardueran ETE-ekin modu eraginkorrean lankidetzan aritzen badira eta laguntzen duten ETE-ek diruz laguntzeko moduko kostu guztien % 30 gutxienez hartzen badute.

B) Nortasun juridikorik gabeko pertsona fisiko edo juridiko pribatuen taldeak eta partzuergoak eta ondasun-erkidegoak. Bertan parte hartzen duten entitate guztiak joko dira onuraduntzat, eta guztiak bete beharko dituzte agindu honetan ezarritako betekizun eta baldintzak. Elkarrekin eskabideek berariaz adierazi behar dituzte elkarteko kide bakoitzak proiektua gauzatzeko hartzen dituen

konpromisoak eta bakoitzari aplikatu beharreko zenbatekoa, horiek ere onuradun gisa hartuko baitira. Dena den, taldearen ordezkari edo ahaldun bakar bat izendatu beharko dute, zeinak nahikoa botere izango baitu, onuradun gisa, taldeari dagozkion egitekoak betetzeko, eta kide bat izendatu beharko dute funtsen hartzaile izateko, zeinak banatuko baitizkie funtsok taldeko gainerako kideei. Elkarrekin ezin dira desegin Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testuategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintza Dekretuko 44. artikulua, 32.m) artikuluekin batera, finkatzen duen preskripzio-epea igarotzen den arte.

5. oinarria.– Diruz lagundu daitezkeen kostuak.

1.– Batzordearen ekainaren 17ko 651/2014 Erregelamenduaren 25. artikuluan eta Batzordearen 2022ko abenduaren 14ko Erregelamenduaren (EB) 38.7 artikuluan xedatutakoaren arabera, honako hauek izango dira 1. eta 2. lerroetan aintzat hartutako laguntzetarako diruz lagundu daitezkeen kostuak:

a) Langileen gastuak: ikertzaileak, teknikariak eta gainerako laguntzaileak, betiere dagokien proiektuan aritzen diren neurrian.

b) Tresneria- eta material-gastuak, proiekturako erabiltzen diren neurrian eta denbora-tartean; tresneria eta materiala ez badira soil-soilik proiekturako erabiltzen beren bizi-baldintza baliagarri osoan, proiektuaren iraupenari dagozkion amortizazio-kostuak soilik hartuko dira diruz lagundu daitezkeen gastutzat, oro har onartutako kontabilitate-printzipioen arabera kalkulatuta; 2014-06-26 ES Europar Batasunaren Aldizkari Ofiziala L 187/47.

c) Eraikin eta lursailen kostuak, proiekturako erabiltzen diren neurrian eta aldian; eraikinei dagokienez, proiektuaren iraupenari dagozkion amortizazio-kostuak baino ez dira diruz lagunduko, orokorrean onartzen diren kontabilitate-printzipioen arabera kalkulatuta; lursailen kasuan, merkataritza-transferentziaren kostuak edo benetan egindako kapital-kostuak izango dira diruz laguntzeko modukoak.

d) Kontratu-ikerketaren kostuak, ezagutza teknikoak edo patenteak, erositakoak edo kanpoko iturriek erabateko lehiako baldintzan emandako lizentzia bidez lortutakoak, eta proiektura eskusiboki bideratutako aholkularitzaren eta zerbitzu baliokideen gastuak.

e) Gastu orokorrak eta ustiapeneko beste gastu batzuk, hor sartuta materialen, horniduren eta zuzenean jardueratik eratorriko halako produktuen kostuak.

2.– 3. lerroan aintzat hartutako laguntzetarako diruz lagundu daitezkeen kostuak honako hauek izango dira:

a) Langileen kostuak.

b) Tresnen eta materialen kostuak, eraikuntzen eta lursailen kostuak, proiekturako erabiltzen diren neurrian eta aldian.

c) Kontratuko ikerketaren kostuak, ezagutzak edo patenteak, bai erositakoak bai kanpoko iturriek erabateko lehiako baldintzan emandako lizentzia bidez lortutakoak.

d) Gastu orokorrak eta ustiapeneko beste gastu batzuk, hor sartuta materialen, horniduren eta zuzenean jardueratik eratorriko halako produktuen kostuak.

3.– Aurrekoaz gain, eta 1.2 lerroko proiektuetan, Elikadura Osasungarriaren RIS3 eremuari, «baserritik mahaira» estrategiari eta Sailburuordetzak I+G arloan abiarazitako planei lotutako I+G lerroak baino ez dira hartuko kontuan. Hona hemen lerro horien xehetasunak:

A) Elikadura osasungarria eta dieta pertsonalizatua:

– Osagaien funtzionaltasun biologikoa eta metabolikoa, eta horiek arrisku-faktoreekin duten eragina (hipertentsioa, hipogluzemikoa, etab.).

– Osagai osasungarrien iturri berriak, baita osasunean eragina duten kapsularatze-teknologiak ere.

– Teknologia berriak, elikagaiak modu osasungarriagoan eraldatzeko eta propietate naturalak kontserbatzeko.

– Existitzen diren produktuak birformulatzea, osasunaren prebentzioaren ikuspegitik funtzionaltasun handiagoa izan dezaten.

B) Elikagaiak ekoizteko sistema berriak:

– Ekoizpen-sistema berriak: ekoizpen integratua, ekologikoa, nekazaritza adimenduna, itsaso zabaleko akuikultura, etab.

– Efizientzia hobetzeko teknologia berritzaileak sartzeari: Prozesuen jarraipen eta kontrolerako, prozesuen automatizaziorako, 4.0 fabrikazio aurreraturako, eta abarrerako IKTak.

– Ekoizpen-sistema efiziente, produktibo eta erresilienteagoak, kanpo-sargaiekiko mendekotasuna txikiagotzen eta emisioak murrizten dituztenak eta klima-aldaketaren agertokietara hobeto egokitzen direnak.

C) Garapen gastronomiko berriak bereziki sentikorrek diren biztanlerientzat:

– Teknologia berriak, azukre, koipe eta gatz gutxiko edo halakorik gabeko kontsumo-produktuak sortzeko, eta garapen kognitiboa indartuko duten osagaiak gehitzeko.

– Estaldura berriak eta sukaldaritzako teknika osasungarriak aplikatzea, kalitate organoleptikoa hobetzeko gai direnak; bereziki, portaera optimorako oliotan frijitu beharrik ez duten edo koipe-xurgapena nabarmen murriztea dakarten estaldurak formulatzea.

Ehundura egokituak eta mastekatzeko errazak dituzten elikagai berriak garatzea, adineko pertsonen berariazko eskakizunetara egokituta egongo direnak, hain justu.

D) Elikadura segurua eta kalitatezkoa:

– Mikroorganismoak, beste patogeno batzuk, alergenak eta kutsatzaile kimikoak eta fisikoak bizkor eta modu goiztiarrean detektatzeko metodo ez-suntsitzaileak garatzea.

– Mikrobio-portaera muturreko egoeretan eta prebentziozko mikrobiologia.

– Ontziratze-sistema eta elikagaiak prozesatzeko eta kontserbatzeko teknologi berriak, elikagaien kalitatea eta segurtasuna bermatzeko jomuga dutenak.

– Gorabidean dauden arriskuak identifikatu eta analizatzea eta elikadura-alergian inplikaturako molekulak identifikatzea.

– Kaltegabetasuna ziurtatzea (kutsadura, toxikotasuna, elikadura-osagaien segurtasuna, etab.).

– Elikagaiak autentifikatzeko eta trazatzeko eta IKTak prozesuetan integratzeko metodoak:

– Kalitate sentsorial handiko produktu eta/edo osagai berriak formulatzea eta garatzea, kontsumitzaileak elikagaia edo errezeta berriz egitea ahalbidetuko dutenak hondakinak prestatzeko eta sortzeko denbora minimizatuz, eta, aldi berean, garbiketa eta aplikatzeko edo erabiltzeko aukerak maximizatuz.

– Prozesatzeko eta ontziratzekeo teknologiak, formatu eta anoa egokiak fabrikatzea ahalbidetzen dutenak, elikagaien segurtasuna optimizatuz.

– Kontserbazio-teknologiak, kontsumitzailearentzat bizitza erabilgarri egokia lortzeko, elikagaiaren propietate organoleptiko guztiak mantenduta betiere.

– Produktu, teknologia eta ontzi berriak, etxeko elikagaien elaborazioan eta kontsumoan ahalik eta hondakin gutxien sortzeko.

4.– Diruz lagundu daitekeen gastuaren zenbatekoak Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legean kontratu txikirako ezarritako zenbatekoak gainditzen dituenean, gutxienez hiru eskaintza –entitate hornitzaile ezberdinenak– eskatu beharko ditu erakunde onuradunak, obrarako konpromisoa kontratatu aurretik, zerbitzua eman aurretik edo ondasuna entregatu aurretik, salbu eta haien ezaugarri bereziak direla-eta merkatuan ez den aski erakunde haiek egin, eman edo entregatzeko, edo salbu eta dirulaguntza emateko ebazpenaren aurretik ez den egin eta ordaindu gastua.

Aurkeztutako eskaintzen arteko hautapena (justifikazioan aurkeztuko dituzte eskaintzok) efizientzia- eta ekonomia-irizpideei jarraikiz egingo da, eta memoria batean berariaz justifikatu beharko dute proposamen ekonomikoki abantailatsuena hautatzen ez dutenean. Era berean, ondasuna edo zerbitzua salbuespenezkoa bada edo merkatuan emaille edo hornitzaile aski ez bada, justifikazio-memoria bat aurkeztu beharko da, hiru eskaintza aurkezteko ezintasunari buruz. Gastua dirulaguntza jaso baino lehen gauzatu bada, amortizazio-gastua lagungarritzat hartuko da, eta ez da beharrezkoa izango hiru eskaintza aurkeztea, baldin eta dirulaguntza eskatu baino lehenago egindako inbertsioetatik eratorritakoa bada.

6. oinarria.– Finantzaketa.

1.– Agindu honetan ezarritako laguntzak finantzatzeko, 2023ko eta 2024ko ekitaldietarako, 3.200.000 euro bideratuko dira. Kopuru hori Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorren kontura finantzatzeko da, eta horietatik 500.000 euro 2023rako ordainketa-kredituari dagozkio, eta 2.700.000 euro, berriz, 2024rako konpromiso-kredituari. Honela banatuko da:

A) 2.000.000 euro 1. lerroari dagozkio (Elikaduraren eta zuraren balio-kateari lotutako I+G proiektuetarako laguntzak): 250.000 euro 2023rako ordainketa-kredituari dagozkio, eta 1.750.000 euro 2024rako konpromiso-kredituari.

B) 1.000.000 euro 2. laguntza-lerroan (nekazaritza- eta basogintza-sektoreetarako ezagutza espezifikoak sortzeko eta zabaltzeko proiektuak); 175.000 euro 2023ko ordainketa-kredituari dagozkio, eta gainerako 825.000 euroak, berriz, 2024rako konpromiso-kredituari.

C) Negozio-prozesuen berrikuntza-proiektuen 3. lerroan, 200.000 euro erabiliko dira; horietatik 75.000 euro 2023. urterako ordainketa-kredituari dagozkio, eta, 125.000 euro, 2024. urterako konpromiso-kredituari.

2.– Eman beharreko laguntzen bolumen osoak ez ditu baliabide horiek gaindituko, ez eta kopuru hori eguneratzean ateratzen den zenbatekoa ere.

7. oinarria.– Eskakizun orokorrak.

Agindu honetan iragarritako laguntza-lerroaren onuradun izateko, oinarri honetan ezarritako eskakizunak bete behar dira. Izan ere, oinarri honek jasotzen ditu honako hauetan dauden bete-kizunak: Dirulaguntzei buruzko abenduaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluan, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuan. Hauek dira horiek guztiak:

1.– Diruz laguntzekoak diren jarduerak Euskal Autonomia Erkidegoaren lurralde-eremuan egitea.

2.– Diruz laguntzekoak diren gastuak ez daitezela izan eskabidea aurkeztu baino lehenago egindakoak.

3.– Egunean izatea zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak. Eskakizun hori bete beharko da hala onuradun izateko nola izaera horri eusteko dirulaguntzaren likidazioa egin arte. Beraz, alde horretatik, egiaztapenak egingo dira bai dirulaguntza ematen denean bai ordainketak egiten direnean.

4.– Dirulaguntzaren onuradun den pertsona fisikoa edo juridiko pribatua ez egotea krisian den enpresatzat hartuta, estatuek krisialdian dauden enpresa ez-finantzarioak salbatzeko eta berregituratzeko ematen dituzten laguntzei buruzko zuzentarauen arabera.

5.– Inbertsioak ingurumenaren arloko eta arlo higieniko-sanitarioko arauak bete ditzala Euskal Autonomia Erkidegoan aplikatzeko den berariazko araudiarekin bat (21/2013 Legea, abenduaren 9koa, ingurumen-ebaluazioari buruzkoa, eta 3/1998 Lege Orokorra, otsailaren 27koa, Euskal Herriko ingurumena babestekoa).

6.– Eskatzaileek jakinarazi behar dute diruz laguntzen den gastu bera ordaintzeko beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide ekonomikorik eskatu dioten administrazio publiko edo erakunde publiko edo pribaturen bati, bai eta eskuratu duten ala ez. Hala badagokio, zehaztu laguntza nork eman duen eta zenbat diru eskatu eta/edo esleitu den.

7.– Eskabidean jakinaraztea ea sartuta dauden ala ez Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak eta haren erakunde autonomoek emandako izaera bereko laguntzen edo dirulaguntzen esparruan hasiera eman zaion edozein itzulketa- edo zehapen-prozeduratan, eta zeintzuk diren zehaztea.

8.– Egunean egotea itzulketa- edo zehapen-prozeduretako kantitate zehatzen ordainketari dagokionez, EAEko Administrazioak eta mendeko erakundeek emandako laguntzen edo dirulaguntzen esparruan. Betebehar horien ordainketak egunean dituztela ulertuko da, baldin eta zorrak atzeratuta eta zatituta badaude edo dagokion itzultze-ebazpena dela-eta bertan behera uztea erabaki bada. Eskakizun hori bete beharko da hala onuradun izateko nola izaera horri eusteko dirulaguntzaren likidazioa egin arte. Beraz, alde horretatik, egiaztapenak egingo dira bai dirulaguntza ematen denean bai ordainketak egiten direnean.

9.– Ez izatea dirulaguntza edo laguntza publikoak eskuratzea eragozten duen zehapen penal edo administratiborik, ez eta horretarako legezko debekurik ere, barnean hartuta sexuagatiko diskriminazioa eragiteagatik gertaturikoak, eranskinean xedatutakoaren arabera.

10.– Era berean, ezin izango zaio inolako laguntzarik edo dirulaguntzarik eman sexuagatik edo bereizkeria anizkoitzagatik diskriminatzailea den jarduera bati (Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren 3.1 artikuluan deskribatuak), ez eta, dagokion zehapenean ezarritako denbora-tartean, sexuagatiko bereizkeria egiteagatik edo emakumeen

eta gizonen berdintasunaren alorreko araudia ez betetzeagatik administrazio- edo zigor-zehapenen bat jaso duten pertsona fisiko eta juridikoei ere.

11.– Konkurtso-deklaraziorik eskatuta ez izatea, prozeduraren batean kaudimengabetzat deklarata ez egotea, konkurtsoan deklarata ez egotea, salbu eta horretan eraginkortasuna hartu badu hitzarmen batek, esku-hartze judzialaren eraginpean ez egotea, edo desgaitua ez egotea Konkurtsoari buruzko uztailaren 9ko 22/2003 Legearen arabera, konkurtsoaren kalifikazio-epaian desgaituntzarako ezarritako aldia amaitu gabe.

12.– Dirulaguntzak lortzeko aukera galduta ez izatea ebazpen irmo baten bidez ezarritako zehapena dela-eta, edo honako delitu hauetakoren bat egin izanagatik: prebarikazioa, funtzionario-eroskeria, ondasun publikoak bidegabe erabiltzea, eragimen-trafikoa, iruzurrak eta legearen aurkako ordainarazpenak edo hirigintza-delituak.

13.– Kausaren batean errudun deklarata izateagatik, Administrazioarekin egindako edozein kontraturen amaiera irmoa ebatzita ez izatea.

14.– Pertsona fisikoa, merkataritza-sozietateen administratzaileak edo beste pertsona juridiko batzuen legezko ordezkariak dutenak ez egotea Kargu publikodunen jokabide-kodea eta haien interes-gatazkak arautzen dituen ekainaren 26ko 1/2014 Legean ezarritako kasuren batean, edo Hauteskunde Araubide Orokorren ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoan araututako hautapen bidezko karguren bat ez izatea, lege horretan ezarritako baldintzetan. Horrez gain, ez egotea hauetan aurreikusitako kasuren batean: Estatuko Administrazio Orokorreko goi-kargudunen jarduna arautzen duen martxoaren 30eko 3/2015 Legea eta Administrazio publikoen zerbitzura dauden langileen bateraezintasunen abenduaren 26ko 53/1984 Legea.

15.– Erregelamenduz zerga-paradisua gisa kalifikatutako herrialde edo lurralde batean ez izatea zerga-egoitza.

16.– Elkarteen kasuan, horiek elkartzeko eskubidea arautzen duen martxoaren 22ko 1/2002 Lege Organikoaren 4. artikuluko 5. eta 6. apartatuetan aurreikusitako debekuen kausetan nahasita ez egotea. Eta inskribatzeko administrazio-prozedura ez etetea ez-zilegitasun penalaren zentzuzko zantzuak egoteagatik, 1/2002 Lege Organikoaren 30.4 artikuluan xedatutakoari jarraikiz, harik eta ebazpen judizial irmoa eman, eta, horren bitartez, inskripzioa dagokion erregistroan egin ahal izan arte.

17.– Berreskuratze-agindu baten mende ez egotea, Europako Batzordeak aurretiaz erabaki badu laguntza bat legez kanpokoa eta barne-merkatuarekin bateraezina dela.

18.– 30.000 eurotik gorako dirulaguntzetarako, eskatzaileak merkataritza eragiketetan berankortasunaren aurkako neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legearen aplikazio eremuan sartzen diren subjektu baino ez direnean, ezingo dira onuradun edo erakunde laguntzaile izan lege horretan aurreikusitako ordainketa-epaiek betetzen ez dituzten enpresak.

8. oinarria.– Eskabideak aurkezteko epea eta modua.

1.– Eskabideak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Eskabidearekin batera, oinarri honen 8. paragrafoan eskatzen diren agiriak aurkeztu beharko dira (I. eranskina).

2.– Bete egiten da hauetan xedatutakoa: irailaren 23ko 179/2014 Dekretuaren 8. artikuluan eta Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 14. artikuluan.

a) Pertsona fisikoek modu presentzialean zein elektronikoa aurkez ditzakete eskabideak.

– Modu presentziala: eskabideak Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren bulegoetan aurkeztuko dira (Donostia kalea 1 – 01010 Vitoria-Gasteiz) edo Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikulua xedatzen dituen tokietariko edozeinetan, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta haren erakunde autonomoen erregistroen sorrera, antolaketa eta funtzionamenduari buruzko apirilaren 29ko 72/2008 Dekretuarekin bat etorritik. Eskatzaileak postetxe batean aurkezten badu eskabidea, irekita dagoen gutun-azal batean egin beharko du, postako langileek zigila dezaten eta data ezar diezaioten. Eskabidea Zuzenean zerbitzuan aurkezteko ezinbestekoa izango da aurretik hitzordua eskatzea: <https://www.euskadi.eus/hitzordua-zuzenean>

Hala ere, ahal den neurrian behintzat, eskabideak aurkezteko eta espedienteak izapidetzeko bide telematikoa erabiltzea gomendatzen da.

– Bide elektronikoa: Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoa sartuta aurkeztuko dira eskabideak: <https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/0110309>

Eskabidea izapidetzeko eta dokumentazioa aurkezteko moduak (elektronikoki zein presentzialki izan) ez du behartuko aurrerantzean ere prozedurako gainerako izapideak modu berean egitera, edonoiz alda daiteke eta.

b) Pertsona juridikoek eta urriaren 1eko 39/2015 Legearen 14. artikuluko 1. apartatuko a), b), c) eta d) letretan adierazitako gainerako subjektuek bitarteko elektronikoa erabili aurretik aurkeztuko dute eskabidea.

Eskabidea aurkezteko, eredu normalizatua erabili beharko da, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoa eskuragarri dagoena:

<https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/0110309>

3.– Eskabidearen ondorengo izapideak (17. oinarriko justifikazioak barne) elektronikoki egiteko, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikora sartu beharko da, «Nire karpeta» atalera:

<https://www.euskadi.eus/nirekarpeta>

4.– Eskabideak, erantzukizunpeko adierazpenak, justifikazioak eta gainerako ereduak izapidetzeko moduari buruzko zehaztasunak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoa daude eskuragarri: <https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/0110309>

5.– Eskabidea ordezkari baten bitartez egiten bada, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 5. eta 6. artikuluetan xedatutakoaren arabera egiaztatu beharko da ordezkariaren, ahalordeen erregistro elektronikoa bitartez:

<https://www.euskadi.eus/ordezkarierregistroelektronikoa/web01-sede/eu/>

6.– Laguntza-eskabidearen ereduaren oinarriko edukia oinarri hauen eranskin gisa argitaratu da.

7.– Eskabidearekin batera agiri hauek ere aurkeztu behar dira:

a) Pertsona juridikoek, erakundea eratzeko eskrituraren eta estatutuen kopia, dagokion erre-gistroan sartu dela adierazten duen zigilua jarrita.

b) Gutxienez 30 orri izango dituen memoria bat (II. eranskina, aurkibide orientatzailea), honako hauek barne hartuko dituena:

– Proposamenaren deskribapen teknikoa, honako hauek barne: artearen egoera eta proiektuarekiko balio erantsia; helburu orokorrak eta espezifikoak; Euskadiko 2030erako ZTBPrekin eta elikaduraren eta zuraren balio-katearen sektore-politikekin bat etortzea; espero diren emaitzak; entregatu daitezkeenak; gauzatze-adierazleak eta emaitzak; zeregin- eta jar-duera-taldeen deskribapena eta kronograma.

– Bi pertsona fisiko edo juridikok edo gehiagok batera aurkeztuz gero, adierazi lankidetzaren balio erantsia eta erakunde bakoitzak proiektuan duen rola.

– Laguntza-lerroaren arabera, proiektuaren emaitzek elikagaien eta egurraren balio-katean duten eragina deskribatzen duten apartatu espezifikoak sartu beharko dira, honako hauei dagokionez: enpresa-berrikuntza, ezagutza berria sortzea, lanbide-trebakuntza, ezagutza-trukea eta/edo emaitzak merkatuan aplikatzea.

– Era berean, ekonomian, gizartean eta ingurumenean izan duen eragin positiboaren edo eragin negatiborik ezaren deskribapena.

c) Proiektuaren aurrekontua: proiektuko bazkide den erakunde bakoitzarentzat, Agindu honen 5. oinarriaren arabera hauta daitezkeen kostuen taula bat eta proiektuaren kostu globalen taula bat sartuko dira, bai eta proiektuaren esparruan aurreikusitako gastu bakoitzaren deskribapena ere. Langileen kostuentzat, parte-hartzaile bakoitzeko aurreikusitako orduko kostua eta dedikazio-orduen kopurua zehaztu beharko dira.

d) Erantzukizunpeko adierazpena, eskatzaileak Agindu honetako eskakizun guztiak betetzen dituela, aurkeztu dituen agiri guztiak egiazkoak direla eta 7. oinarrian –4. paragrafotik 16. paragrafora bitartean– ezarritako eskakizunak betetzen dituela adierazteko. Gainera, 4. eta 5. apartatuetako eta 8.etik 16.era bitarteko apartatuetako betekizunei dagokienez, adieraziko du hori egiaztatzen duen dokumentazioa baduela eta Administrazioaren esku jarriko duela horrela eskatzen zaionean.

e) Bi pertsona fisiko edo juridikok edo gehiagok proiektu bat batera aurkeztuz gero, osatutako partzuergoak lankidetzaren hitzarmen bat aurkeztu beharko du, kide guztiek sinatua. Akordio horretan, elkarrearen ordezkari bakarra den pertsona edo erakunde bat izendatu beharko da, taldeari onuradun gisa dagozkion betebeharrak betetzeko adina botere duena. Pertsona edo erakunde ordezkari horrek jasoko ditu dirulaguntza gisa onartutako funtsak, eta berak banatuko ditu taldea osatzen duten gainerako erakundeen artean.

8.– Elikagaien Kalitate eta Industriako Zuzendaritzak automatikoki egiaztatuko ditu NAN, IFK, bere zerga-betebeharren ordainketak eta Gizarte Segurantzarekiko ordainketak egunean dituela egiaztatzen duten agiriak, pertsona eskatzaileek edo onuradunek horretarako berariazko bai-mena eman beharrik izan gabe, haiek berariaz aurka egiten diotenean salbu, eta, kasu horretan, dagokion ziurtagiria edo dokumentua aurkeztu beharko dute. Hori guztia Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartzen duen 1/1997 Legegintza Dekretuaren 50.3 artikulua aplikatuz, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 28.2 artikuluari dagokionez.

9.– Urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28. artikuluan 3. apartatuan ezarritakoarekin arabera, oinarri honen 8. apartatuan eskatutako dokumentazioa administrazio honetan edo beste batean entregatzen denean eta eskatzaileak berariaz deklaritzen badu dokumentu horietan ez dela aldatu egin, horiek aurkeztutzat joko dira.

Eskatzaileak adierazi beharko du zein Administraziotan eta noiz aurkeztu diren dokumentuok, eta Elikagaien Kalitate eta Industriako Zuzendaritzak elektronikoki bilduko ditu bere korporazio-sareen bidez.

Eskatzaileak ez badu nahi oinarri honen 8. paragrafoan eskatutako dokumentazioa biltzea, berariaz agertu beharko da horren aurka, eta dokumentazioa aurkeztu beharko du.

10.– Nahi den hizkuntza ofizialean aurkeztu ahal izango dira laguntza-eskabidea eta eskatutako agiriak. Era berean, laguntza-eskabidearen ondoriozko jarduketetan, eta prozedura osoan, erakunde eskatzaileak hautatutako hizkuntza erabiliko da, Euskararen erabilera normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legean ezarritakoaren arabera.

11.– Eskabideak oinarri honetan eskatutako dokumentazioa ez badauka, osorik ez badago edo akastuna bada, interesdunari jakinaraziko zaio hamar egun balioduneko epea duela hutsa zuzentzeko edo beharrezko agiriak eransteko. Halaber, adieraziko zaio horrela egin ezean atzera egin duela ulertuko dela, Elikagaien Kalitate eta Industriako zuzendariak ebazpena eman ondoren eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 21. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik.

12.– Enpresa txiki eta ertainek (ETE) izaera hori egiaztatzea beharko dute, agiri hauek aurkeztuta:

A) Pertsona fisikoentzat: pertsona fisikoaren errentaren gaineko zergaren kopia, ekonomia-jardueren eranskinarekin batera, eskaera aurkeztu aurreko ekitaldikoa.

B) Pertsona juridikoentzat: sozietateen gaineko zergaren kopia bat, eskabidea aurkeztu aurreko ekitaldikoa.

Agiriekin batera, dokumentazioak erakusten duen egoera aldatu ez dela dioen adierazpena.

13.– Edonola ere, Elikagaien Kalitate eta Industriako Zuzendaritzak, eskabidean adierazitakoa egoki ulertzeko, ebaluatzeko eta eskabidea izapidetzeko, beharrezkotzat jotzen dituen bestelako argibide edo agiri osagarriak eskatu ahal izango dizkio eskatzaileari.

Agindu honen 4. oinarriaren 1. paragrafoaren C apartatuan eta 2. paragrafoaren C apartatuan zehaztutako onuradunen kasuan, proiektuan parte hartzen duten enpresa edo erakunde bakoitzari buruzkoak izango dira oinarri honen 8. apartatuan adierazitako agiri horiek.

14.– Helbide honetan eskuratu daitezke Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoa onartutako identifikazio eta sinadura elektronikorako bitartekoak:

<https://www.euskadi.eus/identifikazio-elektronikorako-onartutako-bitartekoak/web01-sede/eu/>

9. oinarria.– Azpikontratazioa.

1.– Diruz lagundutako jardueraren gauzatze partziala hirugarrenei azpikontratatu ahalko die onuradunak, baldin eta hirugarren horiek ez badira onuradun. Proiektua gauzatzeko azpikontratazioak ezingo ditu honako muga hauek gainditu:

A) Diruz lagundutako jardueraren % 75eraino, 1.1 lerroan aintzat hartutako laguntzetarako (diruz lagundu daitezkeen kostuak, elikaduraren eta zuraren balio-katearen enpresetako I+G proiektuei dagozkienak).

B) Diruz lagundutako jardueraren % 50eraino, 1.2 lerroan aintzat hartutako laguntzetarako (elikaduraren eta zuraren balio-katerako ezagutza sortzeko proiektuei dagozkienak) eta 2. lerroan aintzat hartutako laguntzetarako (nekazaritza- eta basogintza-sektoreetarako ezagutza espezifikoa sortzeko eta zabaltzeko proiektuei dagozkienak).

C) 3. lerroan aintzat hartutako laguntzetarako (negozio-prozesuetako berrikuntza-proiektuei dagozkienak) diruz lagundutako jardueraren % 50eraino.

2.– Baldin eta hirugarrenei kontratatutako jardueraren zenbatekoa dirulaguntzaren zenbatekoaren % 20 baino handiagoa bada (dirulaguntza 60.000 eurotik gorakoa izanik), idatzizko kontratua egin beharko da, zeina Elikagaien Kalitate eta Industriako Zuzendaritzako titularrak baimendu beharko baitu kontratua formalizatu aurretik eta eskabidea aurkeztu ondoren.

Kontratua formalizatzeko baimen-eskabidea laguntza-eskabidearekin batera aurkeztuko da.

Baimentze- edo ukatze-ebazpena, aldiz, aurkezten den egunetik bi hileko epean emango eta jakinaraziko da; epe hori igarota, berariazko ebazpenik eman ez bada, eskabidea baietsi dela ulertu ahal izango da, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 24. artikuluan xedatutakoaren arabera. Prozedurako ebazpenaren aurka, interesdunak gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango dio Nekazaritzako, Arrantzako eta Elikagai Politikako sailburuordeari. Horretarako hilabeteko epea izango du ebazpenaren jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik aurrera, edo edozein unetan, administrazio-isiltasunak ondorioak izan eta hurrengo egunetik aurrera.

3.– Kontratua ezin izango da zatikatu kontratuaren zenbatekoa murriztu eta 2. paragrafoko baldintzak bete beharrik ez izateko helburuz.

4.– Kontratatuek onuradunaren aurrean baino ez dute betebeharririk izango, eta onuradunari dagokio diruz lagundutako jarduera ondo gauzatzeko erantzukizun osoa Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren aurrean.

5.– Aurreko apartatuan jasotakoa betetzeko, onuradunaren erantzukizuna da diruz lagundutako jarduera itundua gauzatzean agindu honetan ezarritako mugak errespetatzen direla zaintzea, diruz lagundutako gastuen izaera eta zenbatekoari dagokionez; kontratatuek, aldiz, agindu honen 15. oinarriaren 7. paragrafoan adierazitako lankidetzeta-betebeharra bete behar dute, eta muga horiek benetan errespetatzen dituzten ala ez behar bezala egiaztatzeko aukera eman.

6.– Alabaina, onuradunak ezin izango du honako hauekin itundu diruz lagundutako jarduera partez edo osorik egikaritzea:

7. oinarrian ezarritako betekizunak betetzen ez dituzten pertsona fisiko edo juridikoak.

A) Kontratuaren xede den jarduera egiteko beste dirulaguntza batzuk jaso dituzten pertsona fisiko edo juridikoekin.

B) Bitartekari edo aholkulariekin, horiei ordaindu beharrekoak eragiketaren guztizko kostuaren ehuneko jakin gisa zehazten badira; non eta ordainketa hori ez dagoen justifikatuta egindako lanak edo emandako zerbitzuak merkatuan daukan balioaren erreferentziaren arabera.

C) Onuradunarekin loturaren bat daukaten pertsona fisiko edo juridikoak, honakoren bat gertatzen denean izan ezik:

1) Elikagaien Kalitate eta Industriako Zuzendaritzaren alde aurretiko baimena lortu izana.

2) Diruz lagundu daitekeen zenbatekoa ez izatea atxikitako entitateak egindako kostua baino handiagoa. Kostua egiaztatzeko, pertsona onuradunaren gastuak frogatzeko ezarrita dauden baldintza berberak justifikatu beharko dira.

Pertsona fisiko edo juridikoekin edo nortasunik gabeko elkarteekin lotura dagoela joko da uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuak onetsitako Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorren (38/2003, azaroaren 17koa) Erregelamenduaren 68.2 artikuluan jasotako zirkunstantziaren bat betetzen bada.

D) Deialdi eta programa honetan laguntza eskatu duten baina betekizunak betetzen ez dituztelako edo beharrezko den balorazioa lortu ez dutelako laguntzarik gabe geratu diren pertsona fisiko edo juridikoak.

10. oinarria.– Balorazio-irizpide orokorrak.

1.– Proiektuak baloratzeko, balorazio-irizpide hauek izango dira kontuan, eta dagozkien puntuazioak:

– Aurkeztutako memoria teknikoaren kalitatea, 65 puntura arte, eta gutxienez 40 puntu, honela banatuta:

- Azken aurrerapenarekiko balio erantsia: 10 puntu, gehienez.
- Espero diren emaitzak: 15 puntu, gehienez.
- Dagokion sektore-eremuko berrikuntza-politikekin bat etortzea: 5 puntu, gehienez.
- Metodologia: zeregin- eta jarduera-taldeak eta kronogramaren egokitzapena: 20 puntu, gehienez.
- Gauzate-adierazleak eta emaitza: 15 puntu, gehienez.

– Proiektuaren eragina, laguntza-lerroaren arabera: 15 puntu, gehienez.

– Aurrekontua egokitzea: 10 puntu, gehienez.

2.– Proiektua bi erakundek edo gehiagok aurkezten badute, memoriaren kalitatearen balorazio-atalasea gainditu ondoren (40 puntu), lankidetzaren balio erantsia eta erakunde bazkideen egokitasuna baloratuko dira: 10 puntu, gehienez.

11. oinarria.– Laguntzaren zenbatekoa.

1.– Hauek izango dira laguntzen zenbatekoak, laguntza moten arabera:

A) Garapen esperimentalerako eta industria-ikerketarako proiektuetarako laguntzak, 1.1 lerroan jasoak:

1) Garapen esperimentalerako: diruz laguntzeko kostuen % 25; kopuru hori % 45eraino igo ahal izango da enpresa txikien eta ertainen kasuan.

2) Ikerketa industrialerako: diruz laguntzeko kostuen % 50; kopuru hori % 70eraino igo ahal izango da enpresa txikien eta ertainen kasuan.

B) 1.2 lerroko I+G proiektuetarako laguntzak, gehienez ere diruz lagundu daitezkeen kostuen % 50ekoak.

C) 2. lerroko I+G proiektuetarako laguntzak, gehienez ere diruz lagundu daitezkeen kostuen % 80koak.

D) 3. laguntza-lerroa (negozio-prozesuetako berrikuntza-proiektuak):

1) Diruz laguntzeko kostuen % 15 gehienez, enpresa handientzat.

2) % 50 gehienez enpresa txiki eta ertainen kasuan.

3) Laguntza jaso ahal izateko, 60 puntu lortu beharko dira gutxienez.

12. oinarria.– Laguntzen kudeaketa.

1.– Elikagaien Kalitate eta Industriako zuzendariak izango du agindu honetan araututako laguntzak kudeatzeko eskumena.

2.– Elikagaien Kalitate eta Industriako Zuzendaritzako zerbitzu teknikoek eskabide bakoitzean egiaztatuko dute betekizunak betetzen direla, eta berariaz jasota utziko dute hori.

3.– Proiektuak ebaluatu eta baloratzeko, eta balorazio-irizpide objektiboak aplikatzeko eta haiek haztatzeko, balorazio-batzorde bat sortuko da. Balorazio Batzordea Nekazaritzako, Arrantzako eta Elikagai Politikako Sailburuordetzako hiru pertsonak osatuko dute. Horietako bat Ikerketa Programen arduraduna izango da, zeina batzordeburua izango baita. Beste biak Nekazaritzako, Arrantzako eta Elikagai Politikako Sailburuordetzari atxikitako Zuzendaritzetako teknikarien eta HAZI Fundazioko ordezkari baten artean aukeratuko dira, eta Nekazaritzako, Arrantzako eta Elikagai Politikako sailburuordearen ebazpen baten bidez izendatuko dira. Ebazpen horretan, idazkaria zein izango den adieraziko da, eta, betiere, Elikagaien Kalitate eta Industriako Zuzendaritzako teknikari kategoria daukan pertsona bat izango da.

Bere eginkizunak betetzeko, batzordeak arloko adituei eskatu ahalko die bileretan parte hartzeko eta aholkularitza emateko, beharrezko irizten dionean.

Eskabideak aztertu eta ebaluatzeko lan materialak Hazi Fundazioko langileek egin ahalko dituzte, eta Balorazio Batzordeari aurkeztuko dizkiote, Balorazio Batzordeak dagokion erabakia har dezan.

Hazi Fundazioak (Hazi) erakunde kolaboratzaile gisa jardungo du, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 12. eta 13. artikuluetan ezarritako terminoetan, eta arau horren 16. artikuluko oinarritzko xedapenetan eta 53. artikuluko xedapenetan ezarritakoaren arabera.

Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren eta Hazi fundazioaren arteko lankidetzak dagokion baliabide juridikoaren bidez gauzatu da, indarrean dagoen ordenamendu juridikoaren arabera.

Balorazio Batzordea baliozkotasunez eratuta geratuko da bilerak eta eztabaidak egiteko eta erabakiak hartzeko, baldin eta batzordeburua, idazkaria eta gutxienez gainerako kideetako bat bertarutzen badira. Kide anitzeko organo honen funtzionamenduarekin zerikusia duen eta apartatu honetan aurreikusi ez den orotan, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legearen 15. artikulua eta hurrengoak aplikatuko dira, osagarri modura.

Ebaluazio-prozesuan, komenigarritzat hartzen bada, planetan aldaketak sartzea iradoki ahal izango diete entitate eskatzaileei Hazi Fundazioko langileek, proiektuak ezarritako helburuetara hobeto egokitu daitezzen.

Elikagaien Kalitate eta Industriako Zuzendaritzako zerbitzu teknikoek eskabide bakoitzean egiaztatuko dute betekizunak betetzen direla, eta berariaz jasota utziko dute hori.

Balorazio Batzordearen osaera Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da, Nekazaritzako, Arrantzako eta Elikagai Politikako sailburuordeak emandako ebazpen baten bidez.

4.– Balorazio Batzordearen egitekoak hauek izango dira:

a) Aurkeztutako eskabide guztiak aztertzea, eta aplikatzekoa den araudia betetzen ez dutenak baztertzea. Era berean, araudia betetzen ez duen eskabide bakoitza baztertzeko arrazoiak zerrendatuko ditu.

b) Aplikatu beharreko araudia betetzen duten eskabideak ebaluatzea. Ebaluazioaren barruan, proiektuak balioetsiko ditu, eta balioetsiko du zenbateraino betetzen dituen bakoitzak agindu honek finkatzen dituen irizpide objektiboak.

c) Balioesteko eta kuantifikatzeko finkatzen dituen irizpide objektiboetan oinarrituz, onuradun bakoitzari zenbateko laguntza eman proposatzea.

5.– Balorazio Batzordeak ebazpen-proposamena aurkeztuko dio Elikagaien Kalitate eta Industriako zuzendariari. Proposamenak gutxienez agindu honen 14. oinarrian aipatzen den edukia jasoko du.

13. oinarria.– Laguntzak esleitzeko eta kuantifikatzeko prozedura.

1.– Agindu honetan araututako laguntzak lehiaketa bidez esleituko dira.

2.– Laguntza-lerro bakoitzean, aurkezten den jarduera-proiektu bakoitzari eman beharreko hasierako laguntzaren zenbatekoa kalkulatzeko, aurkeztutako proiektuak konparatuko dira, eta agindu honetan finkatzen diren irizpide objektiboak eta balorazio-irizpideak aplikatuko zaizkie.

Aurreko araua aplikatuta, eta laguntza-lerro bakoitzerako, aurkeztutako proiektuen zerrenda bat egingo da, proiektuak puntu gehien duenetik puntu gutxien duenera ordenatuta. Ondotik, laguntzak esleituko dira, aipatu ordenari jarraikiz eta agindu honen 11. oinarrian ezarritako ehunekoak aplikatuta, funts guztiak agortu arte.

3.– Puntuazio-berdinketa hausteko, irizpide hauek aplikatuko zaizkio pixkanaka, ezarritako hurrenkera honen arabera:

a) Puntuazio handiena metodologian.

b) Puntuazio handiena helburuetan eta esperotako emaitzetan.

c) Puntuazio handiena adierazleak eta emaitza ezartzean.

d) Emakumeek parte-hartze handiena izatea proiektuko talde teknikoan/teknikoetan.

4.– Laguntza-lerro baterako erabilgarri dauden funts guztiak esleitu ezean, soberan geratutako kopuruak 3. oinarrian jasotako beste lerro baten funtsa handituko du, hurrenkera honetan, erabat agortu arte:

- Elikaduraren eta zuraren balio-kateko enpresetako I+G proiektuak (1.1 lerroa).

- Elikaduraren eta zuraren balio-katerako ezagutza sortzeko proiektuak (1.2 lerroa).

- Negozio-prozesuetan berritzeko proiektuak (3. lerroa).

- Nekazaritza- eta basogintza-sektoreetarako ezagutza espezifikoak sortzeko eta zabaltzeko proiektuak (2. lerroa).

14. oinarria.– Ebazpena, ebazteko eta jakinarazteko epeak, jakinarazteko modua eta errekurtsioak.

1.– Aurkeztutako eskabide bakoitza eta dokumentazioa aztertu ondoren, Balorazio Batzordeak behar bezala egiaztatuko du Agindu honetan ezarritako baldintzak betetzen direla. Era berean, laguntzak baloratzeko eta kuantifikatzeko irizpide objektiboetan oinarrituz, proposamen bat egingo du onuradun bakoitzari eman beharreko laguntzaren zenbatekoari dagokionez.

2.– Aurreko apartatuan aurreikusitako proposamena jaso ostean, Elikagaien Kalitate eta Industriako Zuzendaritzako titularrak ebazpena emango du, eta, hor, laguntza eman edo ukatuko zaio eskatzaileari.

Hartu beharreko ebazpenak honako informazio hau izan beharko du gutxienez:

A) Aintzat hartutako eskabideei dagokienez:

- 1) Onuradunen izena edo izen soziala, eta IFK edo NAN.
- 2) Diruz lagundutako proiektuaren izena.
- 3) Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontuen kontura finantzatzen den zenbatekoa.
- 4) Diruz lagun daitekeen inbertsioa, aplikatutako irizpide objektiboak eta laguntzaren ehunekoa.
- 5) Proiektua exekutatzeko epea eta proiektuak exekutatzeko epearen bukaera-data.
- 6) Laguntza nortasun juridikorik gabeko elkarte bati emanaz gero, elkarteko kide bakoitzak proiektua exekutatzeko hartzen dituen konpromisoak eta bakoitzari aplikatu beharreko zenbatekoa islatu beharko dira.

B) Aintzat hartu ez diren eskabideei dagokienez:

- 1) Eskabidea aurkezten duen pertsonaren edo sozietatearen izena, IFK edo NAN zenbakia.
- 2) Laguntza ukatzeko arrazoiak.
- 3) Laguntza ukatzeko ebazpenak ez du agortzen administrazio-bidea, eta halako ebazpenaren aurka gora jotzeko errekurtsioa aurkez diezaioke interesdunak, Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Politikako sailburuordeari, hilabeteko epearen barruan, jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita.
- 4) Agindu hau indarrean jarri eta gehienez sei hilabeteko epean eman eta jakinaraziko da ebazpena.

Lehia-konkurrentziako prozeduraren ebazpena, urriaren 1eko 39/2015 Legearen 45. artikulua 1. apartatuko b) letran xedatutakoaren arabera, EHAAn argitaratuko da, eta argitalpena jakinarazpentzat hartuko da. Dena dela, ebazpen osoa helaraziko zaie interesdun guztiei, eta, gainera, ebazpenean interesdun bakoitzari berriaz eragiten dioten alderdiak identifikatuko dira.

Nolanahi ere, lehenik egiten den jakinarazpenaren data hartuko da jakinarazpen-datatzat.

- 5) Prozedura hori ebazteko eta Ebazpena jakinarazteko, sei hilabeteko epea izango da gehienez. Epe hori bukatu eta ebazpen berriazkorik eman eta jakinarazten ez bada, interesdunek

ezetsizat jo beharko dute eskabidea, hala ezarrita baitago Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 25. artikuluan, Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 25.5 artikuluari dagokionez.

6) Prozedurako ebazpenaren aurka egiteko, zeinak ez baitu administrazio-bidea eteten, gora jotzeko errekurtoa jarri dakioke Nekazaritzako, Arrantzako eta Elikagai Politikako sailburuordeari, hilabeteko epean, ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, edo, edozein unetan administrazio-isiltasunaren ondorioak gertatu eta hurrengo egunetik aurrera, betiere Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 121. eta 122. artikuluekin bat.

7) Agindu honetan aurreikusitako laguntzak erakunde onuradunei ematea eta, hala badagokio, ordaintzea, baldintzapean geratuko da; hain zuzen ere, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eta haren erakunde autonomoek emandako izaera bereko laguntza edo dirulaguntzen esparruan hasita dauden baina oraindik bideratzen ari diren itzulketa- edo zehapen-prozedura guztiak amaitzearen baldintzapean.

Prozedurak, amaieran, laguntza publikoak eskuratzeko desgaiakuntza badakar, edo laguntza itzultzeko betebeharrak ezartzen badu, eta dirua ez bada itzuli borondatez itzuli beharreko epean, emandako dirulaguntza indargabetu egingo da, onuradunaren izaera eskuratzeko debekua izateagatik.

15. oinarria.– Onuradunen betebeharrak.

Agindu honek arautzen dituen dirulaguntzen onuradunek oinarri honetan ezarritako baldintzak bete behar dituzte. Oinarri horrek honako baldintza hauek jasotzen ditu: Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren (2003ko abenduaren 17ko 38/2003 Legea) 14. eta 46. artikuluetako baldintzak, eta Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren 50.2 artikuluko baldintzak. Honako baldintza hauek dira zehazki:

1.– Laguntza emateko ebazpenak eta, hala badagokio, laguntza luzatzeko ebazpenak xedatzen duen epean egitea diruz laguntzen den jarduerari; deialdiaren urtean hasi behar da inbertsioa edo gastua.

2.– Dirulaguntza lortu nahi den helbururako erabiltzea.

3.– Emandako dirulaguntza onartzea. Alde horretatik, baldin eta dirulaguntza eman izanaren jakinarazpena hartu eta hamabost egunean onuradunek ez badiote berariaz uko egiten, onartu egiten dutela ulertuko da.

4.– Emandako laguntzaren zenbatekoarekin ondasun inbertariagarriak eskuratu, eraiki, birgaitu eta hobetzen badira, dirulaguntza eman den helbururako bideratu beharko dira ondasunak, gutxienez horiek gauzatu eta hurrengo 5 urteetan –erregistro publiko batean inskribatu beharreko ondasunen kasuan– edo hurrengo 2 urteetan gainerako ondasunen kasuan.

5.– Elikagaien Kalitate eta Industriako Zuzendaritzari jakinaraztea jarduerari edo proiektuari partez edo osorik gauzatu dela eta haren esku jartzea hala egin dela egiaztatzeko beharrezkoak diren agiri guztiak.

6.– Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailari, Ogasun eta Ekonomia Sai-leko Kontrol Ekonomikoko Bulegoari eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiari jasotako laguntzak nola

erabili diren eta haien helburuak bete diren fiskalizatzeko eskatzen duten informazio guztia eman beharko zaie.

7.– Elikagaien Kalitate eta Industriako Zuzendaritzari idatziz jakinaraztea diruz laguntzen den ekintza bera finantzatzeko beste dirulaguntza edo laguntza batzuk eskatu dizkiotela administrazioen bati edo beste erakunde publiko edo pribaturen bati, eta, hala badagokio, laguntzok eskuratu dituztela, hori gertatu eta hamabost eguneko epean, hargatik eragotzi gabe deialdi honen 7. oinarriaren 6. paragrafoan xedatzen dena.

8.– Dirulaguntza emateko kontuan hartzen den egoera subjektibo edo objektiboren bat aldatzen bada, aldaketaren berri ematea Elikagaien Kalitate eta Industriako Zuzendaritzari, idatziz.

9.– Gastuei eta diruz lagundutako jardueri buruz ematen den informazio edo publizitate guztian, argiki jasoko da Eusko Jaurlaritzaren funtsekin finantzatu direla jarduerok, Eusko Jaurlaritzaren erakunde-nortasunaren eskuliburua arautzen duen abuztuaren 31ko 318/1999 Dekretuan xedatuarekin bat.

10.– Merkataritza-legeriak eskatutako terminoetan ikuskatutako kontabilitate-liburuak, erre-gistro izapidetuak eta gainerako dokumentu guztiak izatea, eta deialdi bakoitzean finantzatutako inbertsioarekin lotutako inbertsio eta gastu guztietarako kontabilitate-kode egoki bat edo kontabilitate-sistema bereizi bat mantentzea, araudiak finkatzen dituen kontrolak egin ahal izateko.

11.– 5 urtean jasotako funtsak zertan erabili diren justifikatzen duten agiriak gordetzea, agiri elektronikoak barne, egiaztatze eta kontrolatzeko ekintzetan erabil baitaitezke.

16. oinarria.– Gehieneko exekuzio-epeak.

1.– Oinarri hauen helburuei dagozkien inbertsioak edo gastuak urtean edo hainbat urtetan gauzatu ahal izango dira. 2023ko aurrekontu-ekitaldian hasi behar dira diruz laguntzeko ekintzak.

2.– Urtebete irauten duten proiektuak gauzatzeko epea 2023ko abenduaren 31n amaituko da. Nolanahi ere, luzatu egin ahal izango da, 19. oinarriaren 4. paragrafoan xedatuarekin bat etorriz, eta luzatutako proiektuak gauzatzeko gehieneko epea 2024ko abenduaren 31n amaituko da, beranduenez.

3.– Hainbat urtetarako proiektuak gauzatzeko epea 2024ko abenduaren 31n amaituko da. Nolanahi ere, luzatu egin ahal izango da, 19. oinarriaren 4. paragrafoan xedatuarekin bat etorriz, eta luzatutako proiektuak gauzatzeko gehieneko epea 2025eko abenduaren 31n amaituko da, beranduenez.

17. oinarria.– Gastua justifikatzea.

1.– Dirulaguntzei buruzko abenduaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 30. artikulua betez, dirulaguntza jaso duen inbertsio-proiektua edo gastua bera eta onuradun izateko eskatutako bete-kizun eta baldintzak betetzen direla justifikatzeko, honako agiri hauek aurkeztu beharko zaizkio Elikagaien Kalitate eta Industriako Zuzendaritzari:

a) Egindako jardueren justifikazio-memoria bat, non jasoko baita proiektua gauzatzeari eta haren betetze-mailari buruzko informazioa, eta laguntza emateko betekizun eta baldintzen betetze-mailari buruzkoa.

b) Fakturak eta frogak gisa balio bera duten gainerako agiriak, merkataritzako trafiko juridikoan balio dutenak edo administrazio-eraginkortasuna dutenak, faktura jaulkitzeko beharrik ez dagoen kasuetan, Fakturazio-betebeharrak arautzeko Erregelamendua onartzen duen

Errege Dekretuaren 3. artikuluekin bat etorri betiere (azaroaren 30eko 1619/2012 Errege Dekretua), eta dagokien ordainketa-frogagiria.

c) Erantzukizunpeko adierazpen bat, zehazten duena fakturak eta ordainketak justifikatzeko gainerako egiaztagiria ez direla aurkeztu diruz lagundu daitezkeen beste programa batzuk justifikatzeko edo, hartarako aurkeztu badira, zehazten duena zer programa justifikatzeko aurkeztu diren eta faktura edo egiaztagiri bakoitzaren zer ehuneko lagundu den diruz.

d) Dirulaguntzak itzultzeagatik dagozkion betebeharrak ordaindu dituela adierazten duen erantzukizunpeko adierazpena.

2.– Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak bete direla ofizioz eta automatikoki egiaztatuko du Elikagaien Kalitate eta Industriako Zuzendaritzak. Hala ere, eskatzaileak berariaz uka dezake laguntza-eskabidean inplizituki dagoen baimen hori, eta, hala egiten badu, ziurtagiria edo eskatzen den dokumentua aurkeztu beharko du, betiere urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28.2 artikuluan xedatutakoaren arabera.

3.– Elikagaien Kalitate eta Industriako zuzendariak dokumentu gehiago eskatu ahal izango ditu, egoki baderitzo. Eskabide horrek arrazoituta egon beharko du.

4.– Aurreko apartatuetan aipatutako agiriak aurkeztu ondoren, proiektuaren azken ebaluazioa egingo dute Elikagaien Kalitate eta Industriako Zuzendaritzako langileek, eta proiektuak berarekin soilik inbertsioa edo soilik gastua badakar, edo inbertsioa eta gastua elkarrekin, proiektua gauzatu dela adierazten duen azken ziurtagiria egingo dute.

5.– Inbertsioak edo gastuak egiteko ezarritako epea, edo, hala badagokio, azken luzapena amaitu eta hurrengo urteko urtarrilaren azken eguna izango da, gehienez ere, laguntzen kudeaketa eta ordainketa egokia izango dela bermatzeko, gastua egin dela egiaztatzen duten agiriak aurkezteko gehieneko epea.

18. oinarria.– Ordainketa eta bermeak.

1.– Ordainketak honela egingo dira:

A) Aldez aurretik inbertsioa edo gastua justifikatu behar dira, aurreko oinarriko dokumentuak aurkeztuz. Proiektuak inbertsioa ere baldin badakar berarekin, ordainketak egiteko, justifikazioa beharko da aurretik, egindako inbertsioen ziurtapena prestatu ondoren (Elikagaien Kalitate eta Industriako Zuzendaritzako langileek prestatua). Ziurtapena egiteko bi hilabete daude gehienez, inbertsioa osorik edo partez gauzatu dela komunikatzen denetik eta 17. oinarriaren 1. paragrafoko a) apartatuan aipatzen den memoria aurkezten denetik.

B) Urte bakoitzean, ordainketak kontura egin daitezke, proiektuak gauzatzeko erritmoaren arabera. Horretarako, interesdunek eskabidea egin behar dute aurretik. Gehienez ere, konturako ordainketa bat egingo da urte bakoitzeko. Konturako ordainketa egiteko eskabidearekin batera, 17. oinarriaren 1. paragrafoan aipatzen diren agiriak aurkeztuko dira.

2.– Zehapen-prozeduraren batean edo dirulaguntzen itzultze-prozeduraren batean egonez gero, laguntza jasotzeko, lehenik hura amaitu beharko da. Prozedurak, amaieran, laguntza publikoak eskuratzeko desgaitasuna badakar, edo laguntza itzultzeko betebeharra ezartzen badu, dirua ez bada itzuli borondatez itzuli beharreko epean, emandako laguntza indargabetu egingo da, onuradun-izaera eskuratzeko debekua izateagatik. Kasuan-kasuan, dirulaguntza hauek onuradunei ordaindu ahal izateko, dirulaguntzak itzultzeko betebeharren ordainketak egunean izan beharko dira.

3.– Inbertsioak ez badira egiten gehieneko epeen barruan, ezta epeen luzapenean ere, edo inbertsioa egin izana egiaztatzeko agiriak ez badira aurkezten epe barruan, onuradunek dirulaguntza hartzeko eskubidea galduko dute, eta, hala badagokio, agindu honen 21. oinarriko itzulketza-prozedura jarriko da abian.

4.– Izaera juridikorik ez duten pertsona fisiko edo juridiko pribatuen taldeei eta ondasun-erkidegoei dagokienez, funtsen hartzaile izateko izendatu den kideari egingo zaio ordainketa, eta hark banatuko ditu taldeko gainerako kideen artean.

19. oinarria.– Dirulaguntzak emateko baldintzak aldatzea eta inbertsioa edo gastuak gauzatzeko epeak luzatzea.

1.– Beste erakunde publiko nahiz pribatu batetik beste laguntza edo dirulaguntzaren bat jasoz gero, idatziz justifikatu eta jakinarazi beharko zaio Elikagaien Kalitate eta Industriako Zuzendaritzari, eta, horren ondorioz, gerta liteke dirulaguntza emateko ebazpena aldatzea; kasu horretan, dena dela, agindu honetan ezarritako betekizunak eta laguntza ematea eragin zuen helburua gorde beharko dira. Horretarako, Elikagaien Kalitate eta Industriako zuzendaria dagokion aldatzea-ebazpena emango du, hala egokituz gero emandako dirulaguntzaren zenbatekoak oinarri berriaren arabera doitzeko. Hala bada, 1991ko abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuan jasotako itzulketza-prozedurari ekingo zaio.

2.– Aurkeztu eta dirulaguntza eman zaion proiektuan egiten dituen aldaketak idatziz jakinarazi eta behar bezala justifikatu beharko ditu onuradunak, Elikagaien Kalitate eta Industriako Zuzendaritzaren aurrean.

Aurkeztutako proiektuaren gainean –zeinari dirulaguntza eman baitzitzaion– eginiko funtsezko aldaketen ondorioz, hala badagokio, laguntza emateko ebazpena aldatuko da, betiere erabakigarriak izan ez badira, 10. oinarrian xedatutakoaren arabera; bestela, funtsezko aldaketa horiek ez badute aldatzen laguntzaren ebazpena, Elikagaien Kalitate eta Industriako Zuzendaritzako titularrak ebazpena emango du, eskatutako aldaketa horiek onartzeko.

Honako hauek jotzen dira aldaketa handitzat:

- 1) Aldaketa esanguratsuak egitea proiektuan hasieran ezarritako helbururen batean.
- 2) Proiektua gauzatzeko egutegia aldatzea.
- 3) Proiektua gauzatzeko ezarritako faseren bat deuseztatzea.
- 4) Gastu-kontzeptuak aldatzea, hasieran onartutako gastuez gain beste batzuk ere sartuz.
- 5) Proiektuan parte hartzen duten agenteetatik baten bat ordeztu edo kentzea. Aldaketek ez dute inoiz ekarriko emandako laguntza handitzea.

Aldaketak ez badira funtsezkoak, ez dute biderik emango laguntza ematea xedatzen den ebazpena aldatzeko.

3.– Baldin eta egindako inbertsioaren edo gastuaren behin betiko benetako kostua txikiagoa bada onartutako eta dirulaguntza emateko erreferentziatza hartutako aurrekontua baino, eta laguntza helburu bererako erabiltzen bada, emandako dirulaguntzaren zenbatekoa txikitu egingo da, dagokion proportzioan, Elikagaien Kalitate eta Industriako zuzendariaren likidazio-ebazpen baten bidez, eta, gero, oinarri berriari aplikatuko zaio dirulaguntzaren ehuneko.

4.– Onuradunak eskabidea eta justifikazioa idatziz egin ondoren (gehienez ere emandako laguntzari dagokion proiektuaren betearazpena amaiturik egon behar duen eguna baino 30 egun

lehenago egin behar da hori), Elikagaien Kalitate eta Industriako zuzendariak emandako laguntzari dagokion proiektua gauzatzeko epea luzatzeko baimena eman ahal izango du, ebazpen bidez. Ebazpen horretan, luzapenaren gehieneko aldia edo aldiak ezarriko dira, eta hasieran onartutako dirulaguntzari eutsiko zaio. Proiektuak gauzatzeko gehieneko epea ezin izango da, inola ere, agindu honen 16. oinarrian ezarritako epea baino luzeagoa izan.

20. oinarria.– Atzera egitea eta uko egitea.

1.– Eskatzaileak atzera egin ahal izango du laguntzak emateko prozeduraren ebazpena jakinarazi aurretik. Horretarako, atzera egiteko eskabide bat helarazi beharko dio Elikagaien Kalitate eta Industriako zuzendariari, idatziz, eta hark, ebazpen baten bidez, bete-betean onartuko du eskabidea, eta amaitutzat emango du prozedura.

2.– Onuradunak laguntzari uko egin ahal izango dio, laguntza onartu ondoren (agindu honen 15. oinarriko 3. apartatuan ezarritako betebeharrari jarraikiz, emandako laguntza onartzeko betebeharrara dute onuradunek), baina nolana ere, inbertsioa amaitu aurretik, eta baldin eta Administrazioak inolako ordainketarik egin ez badu. Horretarako, emandako laguntzei uko egiteko idatzkia Elikagaien Kalitate eta Industriako zuzendariari aurkeztu beharko zaio; hark, ebazpen baten bitartez, bete-betean onartuko du eskabidea, eta amaitutzat deklaratu du horri dagokion prozedura.

Ukoa onartuta, onuradunak automatikoki galduko du ebazpen bidez onartutako eskubidea, baita emandako laguntza kobratzeko eskubidea ere.

21. oinarria.– Ez-betetzeak.

1.– Ez-betetzeen kausak izango dira, gutxienez, honako hauek:

- a) Agindu honetan ezarritako betebeharrarako edozein ez betetzea.
- b) Dirulaguntza emateko ebazpenean ezartzen diren baldintzak, halakorik izanez gero, ez betetzea.
- c) Laguntza emateko helburua ez betetzea.
- d) Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen 53. artikuluan eta Dirulaguntzen Lege Orokorraren (azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra) 37. artikuluan xedatutako itzultze-kausaren bat izatea.

2.– Onuraduna aurreko atalean zerrendatutako ez-betetzeen kausetako baten egoeran egongo balitz, Elikagaien Kalitate eta Industriako Zuzendaritzak, 15 eguneko epean, interesdunari entzundaldia emango dion ez-betetze espedientea egin ondoren, egokitzen jotzen dituen alegazioak egin ditzan, ebazpen baten bidez, dirulaguntza jasotzeko eskubidea kenduko dio onuradunari, partez edo osorik, eta, hala badagokio, kobratu dituen laguntzak eta dirulaguntzen arloan aplikatu beharreko berandutze-interesak itzuli beharko dizkio onuradunak Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusiari, partez edo osorik, proiektuaren gauzatze-mailaren proportzioan, Euskal Autonomia Erkidegoaren aurrekontu orokorren kargura ematen diren dirulaguntzen bermeei eta horiek itzultzeari buruzko abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuan eta Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateginaren 53. artikuluan eta 2003ko dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 37. artikuluan xedatuarekin bat. Gainera, dagozkion gainerako neurriak hartuko dira. Ez-betetzea inbertsioei eusteko epeari badagokio, emandako dirulaguntzaren itzulketa *prorrata temporis* egingo da.

Aipatutako zenbateko horiek diru-sarrera publikotzat hartuko dira lege-ondorio guztietarako.

3.– Arau-hauste administratibotzat har daitezkeen gertakarien ondorioz hasten bada itzul-keta-prozedura, organo eskudunari jakinaraziko zaizkio gertakariok, dagokion zehapen-prozedura has dezan.

22. oinarria.– Bateragarritasunak.

1.– Agindu honetan aurreikusitako dirulaguntzak bateragarriak dira beste edozein erakunde publiko zein pribatuk xede bererako emandako beste edozeinekin, betiere dirulaguntza guztien baturak gainditzen ez baditu agindu honek egoera bakoitzerako ezarritako gehieneko ehunekoak. Muga hori gaindituko balitz, gaindikinari dagokion zenbatekoa kenduko zaio laguntzari, Elikagaien Kalitate eta Industriako zuzendariaren ebazpen bidez, erakunde onuradunari entzun ondoren.

2.– Aurreko paragrafoan xedatutakoa gorabehera, baldin eta laguntzen mugak desberdinak badira, onuradunarentzat onuragarriena den muga hartuko da kontuan gaindikina kalkulatzeko.

23. oinarria.– Datuen babesari buruzko oinarrizko informazioa.

Datu pertsonalak «Elikagaien Kalitate eta Industrien arloko laguntzak» izeneko tratamendu-jardueran tratatu eta sartuko dira.

– Arduraduna: Elikagaien Kalitate eta Industriako Zuzendaritza, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saila.

– Xedea: Elikagaien Kalitate eta Industriako Zuzendaritzaren laguntzen, beken eta I+Garen jarraipena, kontrola eta kudeaketa.

– Legitimazioa:

- Tratamendua beharrezkoa da interes publikoaren izenean edo tratamenduaren arduradunari esleitutako botere publikoen izenean burututako eginkizun bat betetzeko.

– Hartzaileak:

- Euskal Autonomia Erkidegoko beste organo batzuk.
- Nekazaritza eta Arrantzako Estatistika Ofizialen Zerbitzua (SEAS). Erakunde ordaintzailea.

– Eskubideak: eskubidea duzu datuak eskuratzeko, zuzentzeko eta ezerezteko, bai eta informazio gehigarrian adierazitako beste eskubide batzuk ere.

– Informazio gehigarria: datuen babesari buruzko informazio gehigarri eta xehea duzu gure web-orrian:

<https://www.euskadi.eus/informazio-klausulak/web01-sedepd/eu/gardentasuna/001600-capa2-eu.shtml>

– Araudia:

- Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra (eur-lex.europa.eu/legalcontent/ES/TXT/HTML/?uri=CELEX:32016R0679&from=ES).
- 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzkoa (https://www.boe.es/boe_euskera/dias/2018/12/06/pdfs/BOE-A-2018-16673-E.pdf).

II. ERANSKINA

ESKABIDEA EGITEKO FORMULARIOAREN EDUKIA

Laguntzaren eskabide-inprimakia webgune hauetan dago eskuragarri: <https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/0110309>

Ahal den neurrian behintzat, eskabideak aurkezteko eta espedientea izapidetzeko bide telematikoa erabiltzea gomendatzen da.

– Bide elektronikoa: Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoa sartuta aurkeztuko dira eskabideak: <https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/0110309>

Funtsezko eduki hau du:

– Eremu generikoak:

- Identifikazio-agiri mota.
- Zenbakia.
- Izena (pertsona fisikoek soilik).
- Lehen abizena (pertsona fisikoek soilik).
- Bigarren abizena (pertsona fisikoek soilik).
- Sexua (pertsona fisikoek soilik).
- Entitatearen izena (pertsona juridikoek soilik).
- Telefono finkoa.
- Telefono mugikorra.
- Helbide elektronikoa.
- Lurralde historikoa.
- Jakinarazpen eta komunikazioetarako kanala.
- Abisuak jasotzeko helbide elektronikoa.
- Abisuak jasotzeko mugikorra.
- Jakinarazpen, komunikazio eta abisuetaarako hizkuntza.

– Eremu osagarriak:

Proiektuaren helburuak eta espero diren emaitza nagusiak jasotzen dituen laburpen exekutiboa.

Honako hauek ziurtatzeko erantzukizunpeko adierazpenak:

- Enpresa ez dago krisialdian, estatuak krisialdian dauden enpresa ez-finantzarioak salbatzeko eta berregituratzeko ematen dituzten laguntzei buruzko zuzentarauen arabera (2014/C 249/01)
- Proiektuak Euskadin ingurumen-gaietan aplikatu beharreko berariazko araudia betetzea (21/2013 Legea, abenduaren 9koa, Ingurumen-ebaluazioari buruzkoa; eta 10/2021 Legea,

abenduaren 9koa, Euskadiko Ingurumen Administrazioarena) –dagokionean, inbertsio-proiektuek ingurumenean duten eragina ebaluatuko da, aurrez–, baita higiene-araudia eta inbertsio bakoitzari aplikatu beharreko Europar Batasuneko arauak ere.

- Jakinaraztea ea diruz lagundu daitekeen proiektu bera ordaintzeko beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide ekonomikorik eskatu dioten administrazio publiko edo erakunde publiko edo pribaturen bati, baita eskuratu duten ala ez.
- Sartuta dago/Ez dago sartuta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak eta haren erakunde autonomoek emandako izaera bereko laguntza eta dirulaguntzen esparruan abiarazi duten itzultzeko edo zehatzeko prozeduraren batean.
- Bai/Ez dago egunean EAEko Administrazioak eta haren mendeko erakundeek emandako laguntzen edo dirulaguntzen esparruan, itzulketa- edo zigor-prozeduretako kantitate zehatzak ordaintzeko betebeharrari dagokionez. Betebehar horien ordainketak egunean dituztela ulertuko da, baldin eta zorrak geroratuta eta zatituta badaude, eta, gainera, gaineratutako zor, interes eta gastu guztiak estaliko dituen bermea eratu bada.
- Ez egotea zigor- eta administrazio-arloan dirulaguntza edo laguntza publikoak lortzeko aukera galtzarekin zigortuta, epai irmo bidez, eta hartarako ezgaitzen duen legezko debekuen eraginpean ere ez egotea, sexuagatiko diskriminazioaren ondoriozko debekuak barne, Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testuategina onartzen duen 1/1997 Legegintzako Dekretuaren 50. artikuluko 5. eta 6. apartatuetan xedatutakoarekin bat etorritz.
- Konkurtso-deklaraziorik ez du eskatu; prozeduraren batean ez dute kaudimengabetzat deklaratu; konkurtsoan deklaratu ez dago, salbu eta horretan eraginkortasuna hartu badu hitzarmen batek; esku-hartze judizialaren eraginpean ez dago, edo desgaituta ez dago Konkurtsoari buruzko uztailaren 9ko 22/2003 Legearen arabera, konkurtsoaren kalifikazio-epaian ezarritako desgaitze-aldia amaitu gabe.
- Ez du jaso dirulaguntzak lortzeko aukera galtzeko zehapenik ebazpen irmo baten bidez.
- Ez du edozein kontraturen amaiera irmoa ebatzita, kausaren batean errudun deklaratuaz izateagatik.
- Pertsona fisikoa, merkataritza-sozietateen administratzaileak edo beste pertsona juridiko batzuen legezko ordezkariak dutenak ez daude Kargu publikodunen jokabide-kodea eta haien interes-gatazkak arautzen dituen ekainaren 26ko 1/2014 Legean ezarritako kasuren batean, edo Hauteskunde Araubide Orokorren ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoan araututako hautapen bidezko karguren bat ez du, lege horretan edo arlo hau arautzen duen araudi autonomikoan ezarritako baldintzetan.
- Laguntza edo dirulaguntza publikoak lortzeko aukera galtuta ez du ebazpen irmo baten bidez ezarritako zehapena dela-eta, edo honako delitu hauetakoren bat egin izanagatik: prebarikazioa, funtzionario-eroskeria, ondasun publikoak bidegabe erabiltzea, eragimen-trafikoa, iruzurrak eta legearen aurkako ordainarazpenak edo hirigintza-delituak.
- Zerga-egoitza ez izatea erregelamenduz zerga-paradisua gisa kalifikatutako herrialde edo lurralde batean.
- Elkarteen kasuan, horiek elkartzeko eskubidea arautzen duen martxoaren 22ko 1/2002 Lege Organikoaren 4. artikuluko 5. eta 6. apartatuetan aurreikusitako debekuen kausetan nahasita ez dago. Eta inskribatzeko administrazio-prozedura ez etetea ez-zilegitasun penalaren

zentzuzko zantzuak egoteagatik, 1/2002 Lege Organikoaren 30.4 artikuluan xedatutakoari jarraikiz, harik eta ebazpen judizial irmoa eman, eta, horren bitartez, inskripzioa dagokion erregistroan egin ahal izan arte.

- (50 langile baino gehiago dituzten enpresen kasuan) Indarrean dagoen berdintasun-plan bat dauka, eta Euskadiko Hitzarmenen, Lan Akordio Kolektiboen eta Berdintasun Planen Erregistroan eta gordailuan inskribatuta dago.
- Berreskuratze-agindu baten mende ez egotea, Europako Batzordeak aurretiaz erabaki badu laguntza bat legez kanpokoa eta barne-merkatuarekin bateraezina dela.
- Kontabilitate-araudiaren arabera urteko kontu laburtuak aurkez ditzakeen erakundeetako bat izanik, nire erantzukizunpean aitortzen dut betetzen ditudala abenduaren 29ko 3/2004 Legean aurreikusitako ordainketa-epeak (3/2004 Legea, merkataritza-eragiketetan berankortasunaren aurkako neurriak ezartzen dituena).

Halaber, erantzukizunpeko adierazpen hau aurkezteak –39/2015 Legearen 69. artikulua aplikatuta– esan nahi du betebeharroriek betetzen dituela, hala ziurtatzen duen dokumentazioa duela, hura eskatzen zaionean Administrazioaren eskura jarriko duela, eskubidea aitortzen zaion bitartean betebeharroriek betetzeko konpromisoa hartzen duela; badakiela funtsezko zehaztasunik ezak, faltsukeriak edo ez-egiteak erantzukizun penalak, zibilak edo administrazioak izan ditzakeela; eta Administrazioak egiaztatze, kontrolatzeko eta ikuskatzeko ahalmena duela.

Laguntza honen organo kudeatzaileak automatikoki egiaztatuko ditu NAN, IFK, zerga-betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duten ziurtagiriak eta Gizarte Segurantzarekiko ordainketak egunean dituela egiaztatzen duten agiriak. Horretarako, pertsona eskatzaileek edo onuradunek ez dute berriazko baimenik eman beharrik izango, berriaz uko egiten diotela adierazten denean salbu, eta, kasu horretan, dagokien ziurtagiria edo eskatutako dokumentua aurkeztu beharko dute. Hori guztia 1/1997 Legegintza Dekretuaren 50.3 artikulua aplikatuz (1/1997 Legegintza Dekretua, Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartzen duena), Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 28.2 artikuluari dagokionez.

- Berriaz ukatzen dut baimena, eta adierazpen honekin batera aurkeztuko ditut ziurtagiriak.

III. ERANSKINA

MEMORIAREN ETA AURREKONTUAREN EREDUA

Ordezkarria/eskatzailea:

Gainerako onuradunak:

BEHAR BEZALA IDENTIFIKATUTAKO KIDE BAKOITZAREN SINADURA

1.– Bete beharreko baldintzak

Zergatik betetzen du proiektuak Aginduaren 2. oinarriko bioekonomiaren definizioa?

(1.000 karaktere gehienez, zuriuneak barne)

Zergatik betetzen du proiektuak Aginduaren 2. oinarriko berrikuntzaren definizioa?

(1.000 karaktere gehienez, zuriuneak barne)

Euskal Autonomia Erkidegoan egiten al dira proiektuaren jarduketak?

Bai. Non? Ez

Ingurumen-, higiene- eta osasun-arauak betetzen al dituzte proiektuaren jarduerak?

Bai Ez

Aurkeztu al duzu alde zuzenetik garatutako proiektu pilotuaren deskribapenik?
(proiektu garatuenen kasuan soilik).

Bai Ez

Aurkeztu al duzu bideragarritasun-azterketarik? (honako hauek hartzen ditu barne:
merkatuaren azterketa, negozio-ereduaren deskribapena eta horren epe labur, ertain eta
luzera garatzeko estrategia) (frogantza-proiektuen kasuan soilik).

Bai Ez

2.– Proiektuaren identifikazioa

Proiektuaren izena			
Proiektuaren akronimoa			
Proiektuaren iraupena	Hasiera-data	UUUU/HH/EE	Hilabete kopurua
	Amaiera-data	UUUU/HH/EE	
Proiektua hasita		Ez/bai	Erantzuna baiezkoa bada, eman azalpen bat (500 karaktere, gehienez, zuriuneak barne hartuta)

3.– Proiektuaren deskribapen laburra.

Eman proiektuaren ikuspegi orokorra, eta azaldu:

- Proiektuaren bidez batera zer erronka komunari heltzen zaion.
- Proiektuaren helburu nagusia eta proiektuak esku hartuko duen lurraldeko egungo egoerari zer aldaketa ekartzea aurreikusten den.
- Produktu nagusiak eta haien zuzeneko onuradunak nor izango diren.
- Proiektuaren ikuspegia eta haren behararen justifikazioa.
- Alderdi berritzailea, lehendik dagoenarekin alderatuta.

Proiektua onartzen bada, laburpena zuzenean argitaratuko da sailaren webgunean (www.euskadi.eus). Hortaz, ezinbestekoa da laburpena ahalik eta gehienek ulertzeko modukoa izatea.

2.000 karaktere, gehienez, zuriuneak barne hartuta

4.– Proiektuak zer helburu bete nahi dituen

2.000 karaktere, gehienez, zuriuneak barne hartuta

5.– Proiektuaren lankidetzaren aurkezpena

Erakunde onuradunaren izena	
Onuradunak proiektuan zer funtzio duen	<i>Eskatzailea eta burua / Onuraduna / Bazkidea</i>
Erakundearen deskribapen laburra	
Erakundearen zer gaitasun, ezagutza eta esperientzia jotzen dira garrantzitsutzat proiekturako?	
Zer onura jasotzen du erakundeak proiektuan parte hartuz?	

(Bete proiektuaren bazkide onuradun bakoitzari dagokionez)

6.– Azken aurrerapenen azterketa

Karaktere-mugarik gabe

7.– Proiektuaren garapena

7.1.– Proiektuaren faseak

Fasea: Proiektuaren azpimultzo logikoak, haren zuzendaritza, plangintza eta kontrola errazteko.

FASEAREN ZENBAKIA	FASEAREN izena	FASEAREN hasiera-data	FASEAREN itxiera-data	FASEKO gastua, guztira
0	Proiektua prestatzea			
Proiektuaren onuradunak:				
Jardueren eta onuradun bakoitzak egindako ekarpenaren deskribapen-laburpena.				
FASEAREN helburuak				

7.2.– Proiektuaren zereginak eta ekintzak

Zeregina: Lan-unitate bakar bat da; ezarritako epean egiten da, eta faseari dagozkion helburuak lortzen lagundu behar du.

Ekintzak: Zereginerako ezarritako epean egin diren jarduerak. Jarduera horiek gauzatzeak zeregina betetzea dakar

FASEAREN ZENBAKIA	ZEREGINAREN ZENBAKIA	Zereginaren izena	
0	1		
Zereginaren deskribapena			
1. ekintza		(1. ekintzaren deskribapen zehatza) (100 karaktere, gehienez)	
1. ekintzako eragileak			
N ekintza		(N ekintzaren deskribapen zehatza) (100 karaktere, gehienez)	
N ekintzako eragileak			
Zereginetan zer emaitza espero diren			
FASEAREN ZENBAKIA	ZEREGINAREN ZENBAKIA	Zereginaren izena	
Zereginaren deskribapena			
Zereginaren deskribapena			
1. ekintza		(1. ekintzaren deskribapen zehatza) (250 karaktere, gehienez)	
1. ekintzako eragileak			
N ekintza		(N ekintzaren deskribapen zehatza) (250 karaktere, gehienez)	
N ekintzako eragileak			
Zereginetan zer emaitza espero diren			

7.3.– Adierazleak eta egiaztatze-iturriak

Deskribatu 1. faseko ekintzak eta entregagaiak		
1.1 zeregina	Zereginaren izena	
E1.1.1	Entregagaia	Onuradun arduraduna
Entregagaiaren deskribapena (250 karaktere)		
1.2 zeregina	Zereginaren izena	
E1.2.1	Entregagaia	Onuradun arduraduna
Entregagaiaren deskribapena (250 karaktere)		
1.n zeregina	Zereginaren izena	
E1.n.1	Entregagaia	Onuradun arduraduna
Entregagaiaren deskribapena (250 karaktere)		

(Bete fase bakoitzari dagokionez)

8.– Proiektuaren ezaugarriak

8.1.– Proiektuaren berrikuntza-maila

Proiektuaren berrikuntza-potentzialaren deskribapena
Egungo baliabideen ordez lehendik dauden baliabideak erabil daitezen zer-nolako ekarpena egiten den azaltzea.
Erabilitako lehengai motaren deskribapena.

8.2.– Emaizten aplikagarritasuna

Ezarpen-planaren deskribapena eta proiektuan zer etapa egin nahi diren
Emaizten iraunkortasuna, erreplikagarritasuna eta/edo transferigarritasuna azaltzea
Sortutako produktuak, prozesuak edo zerbitzuak zer-nolako balio erantsia duen azaltzea / Dauden produktu, prozesu edo zerbitzuen balio erantsiari zer-nolako ekarpena egiten dion azaltzea
Balio-katearen gainean zer-nolako eragina duen azaltzea

8.3.– Ekonomiaren, gizartearen eta ingurumenaren jasangarritasunean zer eragin duen

Klima-aldaketaren ondorioak arintzeko eta horietara moldatzeko zer eragin duen deskribatzea
Enplegu-sorkuntzaren edo ekintzaitza berdearen sustapena deskribatzea
Genero-berdintasunaren ikuspegiaren integrazioa deskribatzea
Proiektuak landa-inguruneetan biztanleak finkatzea sustatzen duen azaltzea

8.4.– Jakinarazpena

Komunikazio- eta zabalkuntza-ekintzak deskribatzea
--

9.– Zer teknologia erabili diren eta teknologia eta ezagutza transferitzeko formulak

Proiektua gauzatzeak proposatutako berrikuntzaren garapenean zer aurrerapen dakarren deskribatzea, abiapuntuko eta amaierako heldutasun teknologikoaren (TRL) mailetan oinarrituta.
Transferentzia teknologikorako prozedura deskribatzea
Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Euskal Sareko (ZTBES) Eragileekiko lankidetzaren mota azaltzea
Transferitutako teknologiaren iturria deskribatzea

10.– Proiektuaren helburuak bioekonomiaren arloko Estatuko eta nazioarteko politiken eta estrategien helburuen ildo beretik joatea.

Proiektuak Eusko Jaurlaritzako Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren planei nola jarraitzen dion azaltzea, nekazaritzako elikagaien sektorearen lehiakortasuna handitzea lortzeko
Proiektuak Euskal Autonomia Erkidegoko nekazaritzako elikagaien sektorerako eta landa-itsasertz ingurunerako Berrikuntza eta Lankidetzaren Estrategia Bizinari nola jarraitzen dion azaltzea
Proiektuaren jardun-eremu geografikoa deskribatzea. Lehentasunezko jardueraren eremu baten barruan al dago?

11.– Aurretik garatutako proiektu pilotuen deskribapena (frogantza-proiektuei dagokienez soilik).

Aurretik garatutako proiektu pilotuen deskribapena
--

12.– Jarduera berritzailearen negozio-plana, zeinak honako hauek barne har baititzake (garatuen dauden proiektuei dagokienez soilik):

Balio-proposamena eta negozio-eredua deskribatzea
Epe labur eta ertaineko helburuak definitzea
Finantza Planaren bideragarritasuna deskribatzea
Giza baliabideen – enplegu-sorreraren plana deskribatzea

13.– Kronograma

Proiektuaren hasiera-data:

Proiektuaren amaiera-data:

ZEREGINAK	2022					2023			
	Z.	Z.	Z.	Z.	Z.	Z.	Z.	Z.	Z.
1. zeregina									
2. zeregina									
3. zeregina									

14.– Aurrekontua:

Aurrekontu orokor laburtua aurkeztuko da, III. eranskin hau parte den Laguntzei buruzko Aginduaren 5. oinarrian adierazitako kontzeptuen arabera.

	ESKATZAILEA ETA BURUA		1. ONURADUNA		2. ONURADUNA		GUZTIRA	
	2023	2024	2023	2024	2023	2024	2023	2024
Langileen kostuak								
Zeharkako kostuak								
Tresna- eta material-kostuak								
Eraikinen kostuak								
Proiektua egiteko berezko eta beharrezko diren gastuak								
Kontratu-ikerketaren, ezagutza teknikoen eta eskuratutako patenteen kostuak								
Proiektua prestatu, koordinatu eta kudeatzeko kostuak								
Komunikazio- eta dibulgazio-jardueren gastuak								
Azpikontrazioa								
GUZTIRA								

2023ko abuztuaren 29a, asteartea

Aurrekontu zehatza aurkeztuko da erakunde onuradun bakoitzeko, jarraian aurkezten den taularen arabera:

1. ONURADUNA												
Urtea (Bi urteetan egiten bada, urte bakoitzekoa zehaztu)	Dedikazioa ordutan	Orduko kostua (€ ordua)	Langileen kostua (€)	Zeharkako kostuak (€)	Tresna- eta material- kostuak (€)	Eraikin- kostuak (€)	Berezko kostuak (€)	Ikerketa- kostuak (€)	Prestaketa- eta koordinazio- kostuak (€)	Komunikazio- kostuak (€)	Azpikontrazio- kostuak (€)	Guztira
1. FASEA												
1.1 zeregina												
1.1.1 ekintza												
1.1.2 ekintza												
Ekintza												
1.2 zeregina												
1.2.1 ekintza												
1.2.2 ekintza												
Ekintza												
... zeregina												
Azpizeregina												
1. FASEA, GUZTIRA:												
FASEA												
Zeregina												
... ekintza												
FASEA, GUZTIRA												
ZENBATEKOA PROIEKTUA 1. ONURADUNA												

(Bete proiektuaren bazkide onuradun bakoitzari dagokionez)

Langileen gastuetan taldekide bakoitzak parte-hartzaile bakoitzaren nortasuna eta lan-kategoria berariaz adierazi beharko ditu, bai eta honako hauek adierazi ere:

- Proiektuan emandako ordu kopurua
- Soldata gordina + gizarte-segurantzako enpresaren kostua
- Kostua/ordu, hitzarmenean/akordioan finkatutako ordu kopuruaren arabera

	Parte-hartzailea (Identitatea edo kategoria profesionala)	Proiektuan emandako ordu kopurua	Soldata gordina + gizarte- segurantzako enpresaren kostua	Kostua/ordu, hitzarmenean finkatutako ordu kopuruaren arabera	Orduak GUZTIRA, kostua/ordu
GUZTIRA					